

ZAIN DEZAGUN INGURUA!

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. ATAZAK

- A. ataza: Jolas eginez ikasi
- B. ataza: Hitzaren indarra
- C. ataza: Bereizi etxeko zaborrak!

3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Besterik nahi?
- B. Xuxen ibili!

4. ERANSKINAK

- I. Iragarkia. ETB. DB 2087
- II. Autobus magikoa. ETB
- III. Mikrotxokoa: "futbolina". ETB
- IV. Jendaurrean hitz egiteko beldurra.
- V. Denok bizi gara hemen. ETB
- VI. Hiriko bizitza. ETB. DB 462
- VII. Ingurune kutsatua. ETB. DB 445
- VIII. Etxeko zaborraren birziklapena. Euskadi Irratia. DB 1167
- IX. Mende amaiera. ETB. DB 1032
- X. Ezagutu etxeko zaborra.
- XI. Zaborra, a zer pisua! Jatun Sunqu. UNICEF (Amaierarik gabea)
- XII. Zaborra, a zer pisua! Jatun Sunqu. UNICEF (Osoa)
- XIII. Beste iradokizun batzuk
- XIV. Karrantzako bailara
- XV. Txango bat Karrantzan
- XVI. Ortografia. Euskadi Irratia. DB 922
- XVII. "Txuri arraia"

BIDEO-PASARTEAK			
<u>A ataza</u>	<u>B ataza</u>	<u>C ataza</u>	<u>Material osagarria</u>
1.- 00. 55. 23 2.- 00. 56. 01 3.- 00. 58. 34	4.- 01. 04. 21 5.- 01. 07. 28 6.- 01. 09. 50	7.- 01. 13. 04 8.- 01. 23. 03	9.- 01. 26. 23

OHARRA: denbora horiek erreferentziazkoak dira.

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Laugarren unitatean animaliei eta landareei buruz jardun genuen, eta ingurumenaren zaintzarekin lotutako alderdi bat jorratu genuen. Bosgarren unitatean, berriz, ildo horretatik aurrera egingo dugu, eta ingurumenaren gaiari helduko diogu beste ikuspegi batetik. Izan ere, hezkuntza ezin baita mugatu ingurune naturalaren behaketara eta ingurumenaren aldeko ekintza isolatuetera.

Horrela, bada, **heziketak bizitza osoa irauten du, eta prozesu horretan familiak, eskolak eta auzoak esku hartzen dute**; heziketarako testuinguru nagusi horietan guztietan eragin behar da, ingurumen-hezkuntzaren helburuak erdiesten direla ziurtatzeko. Helburu horiek bakar batean laburbil litezke: naturarekin orekan bizitzea.

Planteamendu honen ildotik, **haurrei jarduera-mota asko eginaraziko dizkiete eskolan**. Batzuk familiaren esparruan garatuko dira (zaborrak banatu, ohiturak aldatu...); beste batzuek eskolarekin berarekin izango dute lotura zuzenagoa (eskola egokitu, bertan ikasleek dituzten jokabideak aztertu, gaiaren inguruko informazioa bilatu eta landu...); beste batzuk gizarte-ekimenak izango dira (ekitaldi publikoetan esku hartu; eskualdeko kanpainetarako lanak egin, ideia lehiaketak...).

Unitate honetan argudiozko diskurtsoa landuko dugu bereziki (jarraibideak ulertu eta azaldu, aholkuak eman, jarrera azaldu, arrazoitu...). Jarraibideak, aholkuak, gomendioak... barneratzen dituzten jardueretatik abiatu eta solaskideak konbentzitzeko xede argiagoa dutenetara iragango gara.

Beste hitz batzuetan: aurreko unitatean jendeari **zerbaiten berri eman eta arazoez ohartarazte**arekin zerikusia zuten eragiketak landu bagenituen, oraingo honetan, ostera, jendea teoriatik **ekintzara bultzatzea** bilatzen dutenak jorratuko ditugu (instrukzioak, aholkuak, publizitatea...).

A atazan familiaren esparruan zer egin litekeen ingurumena zaintzeko izango da ardatz nagusia. Jolasa eta jolasaren balio hezigarriak hartuko ditugu hizpide. Gurasoek ataza honetan hainbat jolas egin eta jolasen inguruko argibideak eta azalpenak ematen dituzten testuak ulertu eta aztertuko dituzte. Horrekin batera, gaiari atxikitako oinarrizko hiztegia ezagutu eta erabiliko dute eta jolasaren aurrean duten jarrera aztertuko dute.

B atazan gurasoek haurrei jendaurrean azalpenak egoki egiteko laguntza eskainiko diete. Horregatik, haurrek azalpen ezberdinak prestatu beharko dituzte. Hortaz, herria/hiria jasangarriagoa egiteko irtenbideak bilatu nahi dituen forum bat eratuko dute eskolan, eta haurrek "ponentzia" batzuk prestatuko dituzte; gurasoek hainbat aholku emango dizkiete, zalantzak argitu eta beldurrak uxatzeko. Izan ere, jendaurrean gai formal bati buruz hitz egitea, dakigun bezala, ez baita lan samurra.

Ataza honek lau atal nagusi ditu: lehenbizi, jendaurrean hitz egiteko izan ohi ditugun arazoez arituko gara; ondoren, geure herri eta hirien arazo nagusiez jardungo dugu; hirugarrenik, kutsaduraren gaia landuko dugu eta, amaitzeko, etxean har daitezkeen neurriei buruz arituko gara.

Proposatuko diren jardueretan, gurasoek haurren zalantzak argitzen saiatuko dira; jendaurreko ahozko azalpen egokiak egiteko, zenbait trikimailu eztabaidatuko dituzte eta gaiari lotutako hainbat testu irakurri, entzun eta ikusteko aukera izango dute.

C atazan hurrek eskualdeko mankomunitateak aurtengo kanpainarako euskarriak sortzeko egin duen deialdi batean parte hartuko dute. Gurasoek horretara bultzatu, eta beren laguntza eskainiko diete.

Ataza honetan gurasoek eztabaidatuko dute zein testu jarri horma-iragarki bati, nola osatu propagandako esku-orri bat eta nola amaitu artikulu bat. Jarduera guztietan jendea jokabidez aldarazteko argudioak ematen dira.

Besterik nahi? Lehen hiru unitateetan haurrentzako liburu eta ipuinak modu ezberdinetan ezagutzeko eta lantzeko hainbat proposamen jaso genituen. Laugarren unitatean, aldiz, gurasoak egin genituen protagonista nagusi, ipuinak euskaraz kontatzen jarri genituenean. Oraingo honetan, berriz, hurrek berek egindako lanekin gozatuko dugu, eta Karrantzako parke naturala ezagutzera joango gara.

Xuxen ibili! atazan matematika-kontuak alde batera utziko ditugu, eta adin honetako haurren beste buruhauste batez jardungo dugu: ortografiarekin. Horrela, alde batetik, ortografiak zergatik duen halako garrantzia aztertu ahal izango dugu eta, beste alde batetik, XUXEN euskarazko zuzentzaile ortografikoaren nondik norakoak ezagutuko ditugu.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena.



A. ATAZA: JOLAS EGINEZ IKASI

- Birziklatzearen gaia etxean nola lantzen den aztertu.
- Hurrekin jolas egiteko arrazoen zerrenda egin.
- Haurren aldizkarietako hainbat jolas egin.
- Etxean jostailu bat egiteko instrukzioak ulertu, eta hurrek egindako galderei erantzun.
- Famili bizitzan txertatzeko moduko beste jokabide eta ekintzen inguruan eztabaidatu.

MIN/IRAK/ENTZ



B. ATAZA: HITZAREN INDARRA

- Jendaurreko azalpen luzeak noiz egiten ditugun ikusi, eta izan ohi ditugun zailtasunak identifikatu.
- Hurrek jendaurrean hitz egin behar dutenean izan ohi dituzten kezkei erantzun.
- Psikologo baten artikulua irakurri, eta haurrentzat baliagarria izan daitekeen aholku-zerrenda bat idatzi.
- Herrian dauden arazoak zerrendatu, eta konpontzeko proposamenak egin.
- Ingurumen-arazoei buruzko azalpen bat egiteko aholkuak eman hurrei.
- Hurrei azaldu zer gertatzen den uretara edota zerura isurtzen ditugun hondakinekin.
- Erreportajeak ikusi eta ideiak bildu, haurrari kutsaduraren gaineko azalpen bat prestatzen laguntzeko.

IRAK/MINT/ENTZ/IDAZ



C. ATAZA: BEREIZI ETXEKO ZABORRAK!

- Zerrendatu eta sailkatu etxeko zaborrik ohikoenak.
- Horma-iragarki bat egiteko, bi haurren proposamenen artean egokiena zein den erabaki.
- Aditu baten azalpena entzun ondoren, argitu zenbait

objektu zein zaborrontzitara bota behar diren.

- Zabor-mota ezberdinen kutsagarritasunari buruzko artikuluzati bana irakurri, eta elkarri eman artikulua dioenaren berri.
- Hurrek esku-orri bat osatzeko proposatutako hainbat testuren artean egokiena hautatu.
- Amaierarik gabeko artikuluzati irakurri eta, erabaki hurren zein iruzkin den zuzena eta zein okerra.
- Artikuluari amaiera emateko bi hurren proposamenak alderatu, eta egokiena zein den erabaki.
- Jendea arazoez ohartarazteko eta ekintzara bultzatzeko testuen ezaugarriak zerrendatu.
- Ingurumen-hezkuntzarekin lotutako beste gizarte-ekintza batzuen gaineko azalpenak ulertu, eta horiei buruzko iritzia eman.
- Hainbat testu irakurri, eta horri buruz hitz egin.

IRAK/MINTZ/IDAZ



MATERIAL OSAGARRIA

A. BESTERIK NAHI!

- Mapa kontzeptual bat osatu, mendi aldera egin ohi diren txangoen xehetasunak jasota.
- Irakurri Karrantzako bailarari buruzko informazioa, eta hurrei egiteko moduko proposamena prestatu.
- Hainbat hurrek egindako testuak irakurri eta alderatu.
- Lehiaketa baten oinarriak ulertu, eta, parte hartuz gero, pentsatu hurrek nolako testua eta zein tokiri buruzkoa egingo luketen.

IRAK/MINTZ



MATERIAL OSAGARRIA

B. XUXEN IBILI!

- Ortografiari buruzko galdeketa bati erantzun, eta iritzia eman.
- Ortografiaren gaineko solasaldi bat entzun; solaskideek egiten dituzten azalpenak ulertu, eta erantzuteke gelditzen den galdera batez eztabaidatu.
- Zenbait hitzen idazkera egiaztatu Hiztegi Batuan.
- Zenbait irizpide eta idaztarau argitu Euskara Hobetzen webgunean.
- Internetetik Xuxen zuzentzailea jaisteko jarraibideak ulertu.

ENTZ/IRAK/MINTZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

- Ingurumen-hezkuntzan gurasoek duten arduraren inguruan hitz egitea.
- Haurrei ingurumen-hezkuntzarekin lotutako lanak egitean sortzen ahal zaizkien hainbat arazo konpontzen laguntzeko moduak aztertzea

AZPIGAIK

- Familiaren zeregina ingurumen-hezkuntzan (A)
- Jolasen eta eskulanean balio hezigarria (A)
- Jendaurrean hitz egiteko arazoak (B)
- Hiria bilakaera; hiri jasangarria (A) (B)
- Uraren eta airearen kutsadura (B)
- Zaborren berrerabilpena eta birziklapena (C)

HIZTEGIA

- **Jolasen ezaugarriak:** balio hezigarriak, alderdi afektiboa, trebetasun sozialak, harreman fisikoa....
- **Jolasen azalpena:** bikoteak egin, azaletik, irudimena, sorbalda...
- **Eskulanezko materialak:** lekeda (kola), kartoi mehea, guraizeak, lastotxoak...
- **Jokabideak:** zaindu, aurreztu, mugatu, kontsumitu, errespetatu, begiratu...
- **Hiria:** zerbitzuak, berdeguneak, kutsadura, biztanleria, garraioa...
- **Kutsadura:** zikinkeria, hondakinak, ozono-geruza, ur uherrak...
- **Zaborrak:** birziklapena, berrerabilpena, zaborrontzia, bahea...
- **Txangoak:** jantziak, otorduak, bisitaldia....

ELKARRERAGINA

- Jolasteko arrazoien zerrenda bat osatu denek elkarpenen bitartez; jolasen aurreko jarrera argitu (A)
- Zerrenda batean txertatutako gezurra harrapatu (A)
- Letra-zopa batean hamar hitz aurkitu (A)
- Logika joko bat ebatzi taldean (C)
- Zabor hainbat zein ontzitan bota eztabaidatu (C)
- Gurasoentzako zenbait proposamen aztertu eta iritzia eman (C)
- Testu-aipamen hautatuen gainean nor bere iruzkina egin (C)
- Lehiaketa baten oinarriak ulertu eta aurreikuspenak egin (MO-1)
- Ortografiari buruzko galdeketa bati erantzun (MO-2)
- Ortografi zalantzak argitu, INTERNETeko baliabideak erabili (MO-2)
- Internetetik XUXEN nola jaitsi ikasi (MO-2)
- Hainbat jolasi buruzko informazioa trukatu, jolasei buruzko xehetasunak ezagutzeko (A)
- Galdeketa bati erantzun eta emaitzak alderatu (A)
- Testu-aipamen laburrei buruz hitz egin, eta eztabaidatu (A)
- Txandaka aholku bat eman, arazo bati aurre egiteko (B)
- Hainbat hiritarren gutunak irakurri eta horien berri eman; aztertu nola dauden idatzita (B)
- Bideo-pasarte batetik eskuratutako informazioa trukatu (B)
- Mapa kontzeptual bat osatzeko proposamenak egin (B) (MO-1)
- Ideiak proposatu aldarrikapen bat osatzeko (B)
- Testuetako informazioa erabili auziak ebazteko (C)
- Haurren galderei erantzuteko azalpenak prestatu (A) (B) (C) (MO-1)
- Nor bere seme-alabari lagungarri izango zaizkion aholkuak zerrenda batean antolatu (B)
- Jendaurreko azalpen bat prestatzeko aholkuak eman (B)
- Jendaurreko azalpen bat egiteko mapa kontzeptual bat osatu (B)
- Hainbat testuren artean egokiena zein iruditzen zaigun esan eta arrazoitu (C)
- Ohar bat idatzi, haurrek zaborrak poltsa egokian bota dezaten (C)

- Konbentzitzeko helburuz egiten diren testuak idazteko irizpideak hautatu zerrenda batetik (C)
- Haur batzuek idatzitako testua irakurri eta iritzia eman (MO-1)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Marrazki bizidunen saio baten atal bat entzun eta xehetasunak ulertu (A)
- Jostailu bat egiteko jarraibideak gogoan gorde, gero erabiltzeko (A)
- Haurrentzako programa baten hasierako pasarte ikusi eta haurrari argitu bertan azaldutakoa (B)
- Kutsadurari buruzko erreportaje bat ikusi eta informazioa modu selektiboan eskuratu (B)
- Kutsadurari buruzko erreportaje bat ikusi eta egiaztatu egindako hipotesiak (C)
- Aditu baten azalpena entzun eta zalantzak argitu (C)
- Solasaldi bat entzun eta kideek gaiari buruz egiten dituzten balorazioak ulertu (MO-2)
- Arau ortografikoei buruzko azalpenak entzun, eta erabaki hitz bat zuzen dagoen edo ez (MO-2)
- Galdeketa bat irakurri eta erantzun (A) (B)
- Testu bat irakurri eta zenbait ideia zuzenak diren edo ez erabaki (A) (MO-1)
- Pasarte batzuen artean testu bati dagozkionak identifikatu eta ordenatu (A)
- Testu baten hitz gakoak identifikatu eta sailkatu (A)
- Testu bat irakurri eta hutsuneetan falta dena osatu (A) (MO-1)
- Testu batzuk irakurri eta idazleen jarrera eta helburua identifikatu (B) (C)
- Irakurritakoa gogoan izan (C)
- Haurrek idatzitako testuak alderatu adituek idatzitakoekin eta hutsak harrapatu (C)
- Testu bat irakurri informazio jakinaren bila (MO-1) (MO-2)
- Haurrek idatzitako hainbat testu irakurri eta komentatu (MO-1)
- Haurren galderei nola erantzun geniekeen azaldu ahoz(A) (B)
- Jolas baten jarraibideen berri eman ahoz (A)
- Zenbait ekintza orokorren adibideak eman (A)
- Iritziak trukatu (A)
- Haurrei emateko moduko aholkuak formulatu (B)
- Informazioa trukatu, arazo bat ebazteko (C)
- Fitxa tekniko labur batzuetan dagoen informazio esanguratsuenaren berri eman (C)
- Gurasoentzako hainbat proposamen jasotzen dituzten fitxak ulertu, eta iritzia eman (C)
- Txango bat egiteko proposamena egin ahoz (MO-1)
- Galdeketa bati ahoz erantzun; emaitzen berri ahoz eman (MO-2)
- Arrazoien zerrenda bat idatzi (A)
- Garai bateko eta gaur egungo hirien arteko berdintasunen eta ezberdintasunen zerrenda (A)
- Jendaurreko ahozko azalpena egiteko aholkuen zerrenda (B)
- Ohar bat idatzi haurrek zaborrak poltsa egokian botatzeko irizpideak jasota (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

HIZTEGIA:

- Jokabideak adierazteko aditzak (A) (B)
- Jolasak deskribatzeko hiztegia (A)
- Hiria eta ingurumen arazoak (B)
- Hondakin motak (C)
- Hitzen idazkera (MO-2)

AZALPENA:

- Kontzeptu korapilotsuak argitu (A) (MO-1)
- Arrazoien zerrenda bat egin (A)
- Berdintasuna eta ezberdintasuna adierazteko egiturak (A)
- Irudi baten deskribapena egiteko gidoia prestatu (B)
- Mapa kontzeptual bat egin (B) (MO-1)
- Arazo baten arrazoien zerrenda bat egin (C)

- **INSTRUKZIOA**

- Jolas batzuen argibideak ordenatu (A)
 - Prozesu baten deskribapena egiteko antolatzaileak (A)
 - Baldintzazko esaldiak (A)
 - Aholkuak (B)
 - Zaborrak bereizteko irizpideak (C)
 - Instrukzio korapilotsuak argitu (MO-2)

- **ARGUDIOA**

- Iritzia eman eta hipotesiak adierazteko baliabideak (A)
 - Jarrera adierazteko baliabideak (B)
 - Testu bati amaiera emateko moduak alderatu (C)
 - Testu pertsuasiboak egiteko irizpideak (C)
 - Balorazioak egiteko esapideak; nominalizazioak (MO-2)

2. ATAZAK

A ATAZA: JOLAS EGINEZ IKASI

(280')

Helburu orokorrak

- Hurrek ingurumenaren aldeko jarrera gara dezaten, familian egin daitezkeen jolas batzuk ezagutzea eta horiei buruz hitz egitea

Helburu zehatzak

1. Jolasen osagai afektibo eta hezitzaileei buruz hitz egitea
2. Eskolako aldizkarian azaldutako denbora-pasako hainbat jolas egitea
3. Familian egiteko proposatutako jolasen eta eskulanen jarraibideak ulertzea eta horien berri ematea
4. Hezitzaileek gurasoei ematen dizkieten aholkuei buruz nork bere iritzia azaltzea

Zertan den

- Birziklatzea etxean nola lantzen den aztertu
- Hurrekin jolas egiteko arrazoiak zerrenda antolatua egin
- Hurrekin aldizkarietan azaldutako jolas batzuk egin
- Hurrekin egiteko moduko zenbait jolasen jarraibideak ulertu eta nork bere iritzia eman
- Jolas ezagunen baten jarraibideak azaldu
- Etxean jostailu bat egiteko instrukzioak ulertu eta hurrek egindako galderari erantzun
- Famili bizitzan txertatzeko moduko beste jokabide eta ekintzei buruz eztabaidatu

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (5')

- Ikasle bakoitzak adieraziko du ea etxean zaborrak gaika biltzeko ohitura duten.

Ataza: Telebistako iragarki bat ikusi, eta liburuan dituzten puntuei buruz jardun (20')

- Lehen bideo-pasarte ikusiko dute (I. eranskina), eta liburuan dituzten puntuez hitz egingo.
 - Ea ingurumenaz, zaborraz edota birziklatzeaz hitz egiten duten.
 - Ea zaborra gaika biltzen duten etxean.
 - Ea zer, nola eta non biltzen duten.
 - Ea etxeko nork egiten duen lan hori.
 - Ea seme-alabek zer egiten duten.
- Hiru taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak prestatuko du hiru galderetako baten erantzuna. Taldeari azalduko diote ahoz pentsatutakoa.
 - Zergatik birziklatu behar da zaborra?
 - Zer egiten dute zaborteetan pilatzen den zaborrarekin?
 - Zertarako erabiltzen da gero birziklatu dena?
- Autobus Magikoa saioaren atal bat ikusiko dute bideoan (II. eranskina), eta bertan ematen diren erantzunen inguruko xehetasunak jasoko dituzte.

Feedbacka (5')

- Beraiek prestatutako erantzunak telesaioan ematen direnekin alderatu egingo dituzte.

Atazaostea (5')

- Hitz egin nola argitu seme-alabei telesaioan emandako erantzunak. Pentsa dezatela modu samurragoren bat, gauza bera azaltzeko.

2

Atazaurrea (5')

- Taldeka jarrita, adieraz dezatela nolako jolasak gustatzen zaizkion egitea bere seme-alabekin, zein jostailu erabiltzen dituzten gustura...

Ataza: Hurrekin jolas egiteko arrazoiak zerrendatu (20')

- Taldeetan jarrita, liburuan duten taula osatuko dute. Bertan zerrendatuko dituzte hurrekin jolas egiteko arrazoiak bi multzotan banatuta: afektibo-emozionalak eta heziketarekin loturikoak.

AFEKTIBO-EMOZIONALAK	HEZIKETAREKIN LOTURIKOAK

- "Jolasa, umeentzat bakarrik?" testua irakurriko dute, eta emandako esaldiak egia ala gezurra diren erabakiko.

Jolasa, umeentzat bakarrik?

Jolasaren bitartez, umeek imitatu, harremanak izan eta ingurua ezagutzen dute. Adin horretan, jolasa ikaskuntzarako biderik eraginkorrenetarikoa da. Gainera, gezurra dirudien arren, bide hau ez da haurtzaroen agortzen. Jolasaren bidez, umeek eta nagusiok hezkuntzaren aldetik balio handia duten alderdiak garatzen ditugu. Besteak beste, jolasak ondoko ezaugarriok ditu:

- Edozein adinetan ere, motibazioari eragiten dio, dibertsioa eta poza sortzen baititu.
- Gaiekiko ikuspegi eta hurbiltze orokorra ahalbidetzen du.
- Sentimenduak eragin eta baloreei loturiko alderdiak ditu.
- Jarduera fisikoak eta zentzumenak sustatzen ditu.
- Negoziaziorako eta elkarrizketarako gaitasunak garatzen ditu.
- Prozesuari (jolasteari berari) lehenetsuna eman dakioko, emaitzei baino gehiago.
- Taldeko ikaskuntza errazten du.
- Gauzak besteen ikuspegitik ikusten laguntzen du (batez ere, simulazio- eta interpretazio-jolasetan).

Hori guztia kontuan hartuz, argi dago jolasa gero eta baliabide didaktiko erabiliagoa dela; izan ere, metodologia parte-hartzaile eta ludikoan oinarrituriko ikaskuntza-prozesuak sortzeko erabiltzen da.

Ingurugiro-hezkuntza, izan ere, jolasaren hezkuntza-ahalmen hori ondoen erabili duen joera pedagogikoetakoa da. Jolas-mota asko erabiltzen dira. Esaterako, miaketa-jolasak, sentsibilizaziokoak, jakintzazkoak, etab

ERANTZUNA

- Jolasa haurrentzat ikasteko biderik eraginkorrena da. (GEZURRA)
- Jolasen bidez nagusiok ere gauza asko ikasten ditugu. (EGIA)
- Jolaserako motibatuta bagaude, ondo pasatuko dugu. (GEZURRA)
- Jolasen bidez ia edozein gairen inguruan jardun dezakegu. (EGIA)

- Jolasean ez gara buruaz bakarrik baliatzen. (EGIA)
- Trebetasun sozialak behar dira jolasaz gozatzeko. (GEZURRA)
- Jolasa askotan erabiltzen da ingurugiro-hezkuntzan. (EGIA)

Feedbacka (5')

- Alderatu egingo dituzte erantzunak.

Atazaostea (5')

- Denon artean osatuko dute jolasteko arrazoiaren zerrenda: irakurritakoetatik gogoratzen dituztenez gain, erantsi haiei ere egoki iruditzen zaizkienak.


3

Atazaurrea (5')

- Bakoitzak adieraziko du ea aldizkari-egunkarietako denbora-pasak egiteko ohitura duen (gurutzegramak, letra-zopak...).
- Denen artean denbora-pasarik ezagunenen zerrenda bat egingo dute arbelean.

Ataza: Denbora-pasa bat egin: antzekotasunak eta ezberdintasunak (20')

- Bi taldetan banatuko dira.
 - A taldekoek Donostiako bi argazkien arteko lau ezberdintasun zerrendatuko dituzte, eta ezberdintasunen artean gezur bat tartekatuko dute.
 - B taldekoek bi argazkion arteko lau antzekotasun zerrendatuko dituzte, eta antzekotasunen artean gezur bat tartekatuko dute.



- Fitxak trukatu, eta gezurra harrapatzen saiatuko dira. Azkenik, zerrendako gainontzeko hirurekin ados dauden ala ez erabakiko dute.
- **Oharra:** herriko edo inguruko bi argazki ere erabil litezke.

Feedbacka (5')

- Hitz egindakoaren berri emango diote talde osoari. Zalantzak eztabaidatu eta argitu egingo dituzte. Nahi izanez gero, erantsi zerrendari berdintasun-ezberdintasunen bat gehiago.

Gramatika eta diskurtsoa: Antzekotasunak eta ezberdintasunak adierazteko formak (15')

- Zerrenda batera eramango dituzte berdintasuna eta ezberdintasuna adierazteko erabili dituzten formak.

BERDINTASUNA	EZBERDINTASUNA
<ul style="list-style-type: none">berdina izanbezain	<ul style="list-style-type: none">baino gehiago

- Ezagutzen dituzten beste batzuk erantsiko dituzte.
- Argazkien arteko aldeak eta antzekotasunak jasotzen dituen fitxan duten informazioa baliatuz, egin dezatela hainbat esaldi. Entzuleek erabaki beharko dute erabilitako esaldiak zuzenak eta egokiak diren.
- Sortutako zalantzak argitu.

Gramatika eta diskurtsoa: Iritzia eman eta hipotesiak adierazteko moduak (10')

- Taldeka antolatu eta haurrak egindako galderari erantzuteko proposamenak prestatuko dituzte: "Eta berrogeita hamar urte barru, nola egongo da herria: hobeto ala okerrago?"
- Horien berri emango diote talde osoari. Entzuleek idatzi egingo dituzte iritzia eman eta hipotesiak adierazteko erabili dituzten baliabideak ('beharbada', 'segur aski', 'pentsatzen dugu'...). Argi ditzatela horien arteko aldeak.
- Erabaki dezatela hipotesiak egiteko erabili dituzten baliabide guztien artean zeinek adierazten duen ziurtasun handiena.

Ataza: Denbora-pasa bat egin: letra-zopa (20')

- Taldeka jarriko dira. Esaldietan falta diren hamar aditzak bilatuko dituzte letra-zopan.

JOKABIDE GARBIA: HAMAR AGINDU									
ETXEAN					KALEAN				
Zaborrak B _____					Ez B _____ gauzak lurrera				
Argindarraren kontsumoa M _____					Autoa gutxiago H _____				
Paper birziklatua E _____					Berdeguneak Z _____				
Ura A _____					Ingurune naturala E _____				
Produktu ekologikoak K _____					Animaliak E _____				
A	U	R	R	E	Z	T	U	I	E
T	B	Z	X	C	A	L	T	N	R
O	E	R	A	B	I	L	I	J	R
B	R	B	S	F	N	K	M	A	E

B	E	M	S	A	D	M	U	E	S
A	I	L	U	I	U	L	S	T	P
T	Z	O	T	T	H	O	T	I	E
I	T	A	R	U	A	T	N	B	T
M	U	G	A	T	U	D	O	M	A
A	Z	I	H	J	O	L	K	N	T
F	R	R	E	Z	A	G	U	T	U

ERANTZUNA

JOKABIDE GARBIA: HAMAR AGINDU	
ETXEAN	KALEAN
Zaborrak BEREIZTU Argindarraren kontsumoa MUGATU Paper birziklatua ERABILI Ura AURREZTU Produktu ekologikoak KONTSUMITU	Ez BOTA gauzak lurrera Autoa gutxiago HARTU Berdeguneak ZAINDU Ingurune naturala EZAGUTU Animaliak ERRESPETATU

Feedbacka (5')

- Erantzunak alderatu egingo dituzte.

Hiztegia: jokabideak adierazteko aditzak (10'):

- Taldeka jarrita, saia daitezela aditz bakoitzak zehazki adierazi nahi duena argitzeko azalpenak prestatzen. Horretarako, jarri ikasleen eskura euskal hiztegiak.

Gramatika eta diskurtsoa: Baldintzazko esaldiak (10')

- Taldeetan jarrita, letra-zopako hamar aginduen gainean haurrak egindako galderari erantzuteko proposamenak prestatuko dituzte.
 - Zergatik bete behar ditugu agindu horiek?
 - Zer irabaziko dugu?
- Horien berri emango diote talde osoari. Horretarako, hurrengo adibidearen moduko baldintzazko esaldiak eratu dituzte.
Adb.: "zaborrak bereizten baditugu, horietako batzuk birziklatu ahal izango dira".
- Sortzen diren zalantzak argituko ditugu.

Atazaostea (5')

- Taldean iritziak trukatu. Liburuko galderak balia ditzatela iritziak ematea errazteko.

- 1.- Euskaraz egiteko zailak iruditzen al zaizkizue jolas hauek?
- 2.- Zein jolas gustatuko zaio gehien zeuen haurrari? Zergatik?
- 3.- Zein dira gehien baloratzen dituzuen jolasen ezaugarriak?
- 4.- Motibatuago sentitzen al zarete jolas egiteko?

4

Atazaurrea (5')

- Eskulanak eta etxean egindako jostailuak izango ditugu hizpide. Ondorengo ataza girotzeko egin ikasleei ondorengo galderak.
 - Zeuek (eskulanak) gustuko al dituzue? Gogoan al duzue zeuek egindako jostailuren bat?
 - Zeuen haurrek egiten al dituzte jolasteko gauzak?

Ataza: Telebistako saio labur bat ulertu, eta instrukzio-zerrenda bat ordenatu (20')

- Galdetu ikasleei ea beren seme-alabek MIKROTXOKOA programa ezagutzen duten, eta, ikusten baldin badute, zer iruditzen zaien.
- Bideoan jostailu bat nola egin ikusiko dute. Liburuan dituzten instrukzioak ordenatzeko ahalegina egin dezatela bideoa ikusi aurretik.
- Azkenik, 3. bideo-pasarteko azalpena ikusi (III.eranskina), eta erantzuna egiaztatu dezatela.

ERANTZUNA

- 1.- Neurriira moztu oinetik hasita 5 zentimetrora. Guraizeak hartu, eta ekin lanari.
- 2.- Berdinu ostean, alboan bi zulo egingo ditugu 2 cm-ko altuera eta 5-6 cm-ko zabalerakoak.
- 3.- Kaxa barruko neurria hartu, eta neurri bereko kartoi mehe berdea moztuko dugu.
- 4.- Errotuladore zuriarekin futbol-zelaia margotuko dugu.
- 5.- Marraztutako zelaia kaxan itsatsiko dugu; horretarako, lekeda (kola) emango diogu.
- 6.- Egunkaritik hartutako zaletuen argazkiak moztu, eta alboetan itsatsi.
- 7.- Lastotxoak neurri berean moztu, eta bata bestearen barruan sartu futbol-zelaiko atea egiteko.
- 8.- Sare-zatiak moztu, eta ateei lotu hariarekin.
- 9.- Ateak zelaira itsatsi plastilinarekin.
- 10.- Amaitu aurretik ateei bi zulo egin lastotxoak sartzeko; horiekin baloiari putz egingo diogu.

Feedbacka (5')

- Taldeko norbaiti eskatuko diogu egin dezala ahoz mahai-futbola egiteko prozesuaren azalpena. Horretarako, emandako jarraibideen zerrenda baliatuko du. Ikaskideek, azalpenarekin ados ez badaude, zuzentzen ahaleginduko dira.

Gramatika: Prozesuak deskribatzeko antolatzaileak (15')

- Berriro entzungo dute azalpena.
- Entzun ahala apuntatu egingo dituzte jarraibideak adierazteko erabili dituzten esapideak, esaldiak...
- Esaldiak adierazi ahalean, ahalegin daitezela zein diren antolatzaileak adierazten. Nahi izatera, arbelean idatz zenitzake, nahi duenak idatziz jaso ditzan.

5

Atazaurrea (10')

- Emandako baieztapenekin ados dauden edo ez adieraz dezatela. Arrazoitu ditzatela erabakiak.

- Ingurugiro-arazoak gehienetan "beste norbaitek sorturiko arazoak" direla uste dugu; hala ere, gure ekintzek badute eragina ingurugiroan.
- Ez dugu nahikoa egiten ingurugiroaren hondamendiaren kontra eta eskualde pobreen alde.

- Geure eguneroko bizitzako ekintza txikiak oso onuragarriak izan daitezke ingurumena zaintzeko.
- Geure jokabidea aldatzen joatea seme-alabak hezteko modu egokia da.
- Horrela, haurrei ingurumena errespetatzeko mezua emango diegu geure ekintzen bidez.
- Balio handiagoa du ematen diegun ereduak esaten diegunak baino.

Ataza: Galdeketa bati erantzun eta zenbait ekintza egindako galderekin lotu (30')

- Emandako galdeketa irakurri, eta erantzun egingo dute.

JARRERAK ETA EKINTZAK

MAIZTASUNA

	Beti	Batzuetan	Inoiz ere ez
1. Ezer erosi aurretik, behar dudana ala ez pentsatzen dut			
2. Kontuan hartzen dut zerbitzuek eta produktuak ingurumenean duten eragina			
3. Behar ez direnean itzali egiten ditut argiak eta aparatuak			
4. Behar dudanean besterik ez dut erabiltzen berogailua			
5. Garraio publikoa erabiltzen dut			
6. Nahiago dut produktu iraunkorrak erabili "erabili eta botatzekoak" baino			
7. Papera, beira, pilak... birziklatzeko ontzietara eramaten ditut			
8. Interesa daukat ingurugiroari buruzko gaietan, eta informazio egokia edukitzeko ahalegina egiten dut			
9. Birziklatutako produktuak erabiltzen ditut (papera, plastikoa, beira...)			
10. Ura alferrik ez galtzeko ahalegina egiten dut			
11. Ingurugiroaren aldeko programetan edo kanpainetan parte hartzen dut			
12. Uste dut bizitzeko eta kontsumitzeko nire jokabideak baduela eragina, bai beste pertsona batzuen bizimoduan, baita ingurugiroan ere			
13. Ezer zakarretara bota baino lehen, konpontzeko edo berriro erabiltzeko ahalegina egiten dut			
14. Berriro erabiltzeko edo erraz birziklatzeko moduko ontziak erabiltzen ditut			

- Galdeketa emaitzak alderatu egingo dituzte talde txotan. Galdeketa jasotako ekintzen artean zein iruditzen zaizkien errazena eta zein zailena adieraziko dute. Arrazoitu.
- Emandako ekintzen zerrenda irakurriko dute, eta galdeketa zein galderarekin duten zerikusia esango dute.

1. Zentzuz kontsumitu
2. Aprobetxatu eguzkiaren beroa eta argiak
3. Zaborra gutxitu
4. Zenbat gastatzen dugun ikusi, zenbat aurrez dezakegun kalkulatzeko
5. Ingurumena hobetzeko kanpainetan buru-belarri esku hartu
6. Bereiztu gauzen prezioaren eta balorearen artean
7. Naturaz gozatu
8. Haurrei erosten irakatsi
9. Uraren erabilera neurtu
10. Autoaren erabilera murriztu

Feedbacka (5')

- Galderen eta ekintzen arteko harremana argitzeko, adibide zehatzak emango dituzte. Nahi izatera, talde osoaren aurrean ere egin daiteke.

Atazaostea (15')

- Irakur ditzatela atazaren amaieran jasotako bi iritziak, eta, taldeka jarrita, saia daitezela tarteko jarrera bat aurkitzen. Ahal duten neurrian esaldi batean idatz dezatela.

<p>Nik oso garbi daukat: kotxerik ez; janari ekologikoak; arropetan zuntz naturalak... Ingurumenarekin orekan bizitzea funtsezkoa da!</p> <p style="text-align: right;">Amaia G.</p>	<p>Ez dakit zer espero duten irakasleek! Hurrei burua puztu egiten diete ideia ederrekin, baina, gero, bizi egin behar da! Lortzen duten gauza bakarra hau da: hurrek gutaz irudi txarra izatea.</p> <p style="text-align: right;">Fede S.</p>
--	--

- Azal dezatela talde osoaren aurrean taldetxoetako emaitza.
- Azkenik, Ramon Folch jaunaren baieztapena irakur dezala gelako norbaitek ozenki. Esaldiaren esanahia argitu, eta ados dauden ala ez esan dezatela:
- **“Ez da beharrezkoa ezeren errudun sentitzea, baina erantzukizuna dugu gauza guztietan”**

Helburu orokorrak

- Jendaurreko ahozko azalpenak prestatzea, forum batean esku hartzeko

Helburu zehatzak

- Jendaurrean lasai hitz egiteko aholkuak ulertzea eta horiei buruz hitz egitea
- Herriko arazoei buruz eztabaidatzea
- Ingurumenaren aldeko jardunbideak jasotzen dituen aldarrikapen bat idaztea

Zertan den

- Jendaurreko azalpen luzeak noiz egiten ditugun ikusi eta izan ohi ditugun zailtasunak identifikatu
- Haurrek jendaurrean hitz egin behar dutenean izan ohi dituzten kezkei erantzun
- Psikologo baten artikulua irakurri eta haurrentzat baliagarria izan daitekeen aholku-zerrenda bat idatzi
- Hirietako ingurumen-arazoen gaineko azalpen bat egiteko aholkuak eman haurrei
- Haurrei azaldu zer gertatzen den uretara edota eguratsera isurtzen ditugun hondakinekin
- Erreportajeak ikusi eta ideiak bildu, haurrari kutsadurari buruzko azalpen bat prestatzen laguntzeko

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (5')**

- Liburuan dituzten galderei erantzunda, ikasleek azalduko dute nolako oroitzapenak dituzten eskolan egin behar izan zituzten jendaurreko azalpenen gainean.
 - **Nola sentitzen zinen?**
 - **Erraz egiten al zenuen?**
 - **Jende askok oso oroitzapen txarrak ditu esperientzia horiek gogoratzen dituenen; gauza bera gertatzen al zaizu?**

Ataza: Jendaurreko azalpen bat taxuz egiteko aholkuak eman (30')

- Taldeka, ikasleek liburuan duten taula osatuko dute. Taulan hainbat testuinguru eskaintzen zaizkie eta horietan zer-nolako hizketaldiak egin behar izaten diren esan behar dute. Taldetxoan adibideak bateratu, eta zerrenda bakar bat osa dezatela.

Etxean, eguneroko harremanetan	Haurrei azaldu familiako gertaeraren bat;
Familiako ospakizunetan	
Auzokideen bileretan	
Ikastolako gurasoen bileretan	
Irakaslearekin	
Kultur eta kirol-elkarteetan	Ekitaldi bat aurkeztu;
Hizkuntz eskoletan (hizkuntza	

ikasteko ariketa)	
Banketxean	
Erakunde publikoetan (udalak, aldundiak...)	Azaldu nolako arazoa izan dugun errenta aitortpenarekin;
Lanean	
Azterketetan	
Medikuarenean	

- Zerrenda horretan bakoitzak kolore gorri marka ditzatela kostata egiten dituzten azalpenak; beste kolore batean lasai egiten dituztenak. Txandaka, ondorengo galderei jarraituz, ikasle guztiek azal dezatela taldearen aurrean nola ikusten duten beren burua.
 - Zein dira usuenak?
 - Zenbateraino sentitzen zarete trebe jendaurrean luze samar hitz egiteko?
 - Nola moldatzen zarete euskaraz?
- Jarraian haur batzuk adierazitako zalantzak eta beldurrak dituzte. Taldeka jarrita, "Jendaurrean hitz egiteko beldurra" testua (IV. eranskina) irakur dezatela, eta bertan bila ditzatela galdera horien erantzunak .

ERANTZUNA

Oso urduri jartzen naiz ama; zer edo zer eman beharko didazu lasaitzeko!	Hobe da lasaitzeko ezer ez hartzea; kirolariek egiten duten bezala, tentsioa lana hobeto egiteko erabiltzen ikasi behar da.
Zer egin hitz zailak trabatu egiten bazaizkit?	Lasai hartu; ez lotsatu, eta saiatu berriro. Badaezpada ere, idatzita eraman saiakeretan trabatu zaizkizunak.
Ahotsa oso ahula dut, eta gelakoek ez dute ondo entzuten; orduan kexaka hasten dira, eta eten egiten didate...	Eskatu irakasleari jendearengandik gertu hitz egiten uzteko. Hizketan hasten badira, isil zaitez. Berehala ohartuko dira.
Komeni al da lehenengo saioaren bat egitea etxean? Eta saioa grabatzea?	Bai, oso garrantzitsua da.
Eta esan behar dudana ahazten bazait?	Izan prest ohar batzuk idatzita, baina ez daitezela gehiegi izan. Bestela, paperen artean galduko zara.
Zer da hobea: eskema bat egitea ala laburpen bat?	Hobea da laburpena, ideien arteko harremanak argiago uzteko. Hitzaldiaren unean, haatik, eskema bat ballagarriagoa da.
Behin esan zidaten hoberena zela txisteak eta gauza barrengarriak sartzea....	Kontuz ibili! Beharbada, horrekin hitzaldi guztia zapuztuko duzu eta.
Denen aurrean jartzen naizenean ez dakit nora begiratu, eta urduriago jartzen naiz	Hautatu bi edo hiru pertsona, eta begiratu haiei.
Zer egingo dut norbaitek zerbait galdetzen badit?	Erantzuna ez badakizu, lasaitasun osoz esan; dena den, ez dago sobera etxean aurreikustea egiten ahal dizkiguten galderak edota pentsatzea zer esango dugun, baldin eta erantzuna ez badakigu.

Feedbacka (15')

- Txandaka ikasleek aholku bana adieraziko dute ahoz. Orri batean jaso guztiak, eta aholkuen zerrenda bat osatu.
- Zalantzaren bat badago edo bat etortzen ez badira, eztabaidatu argitu arte.

Atazaostea (5')

- Bukatzean, aholkuen zerrenda jasotzen duen orria banatu ikasleei.
- Irakurri, eta ordena ditzatela seme-alabei emateko moduan, garrantzitsuenetik hasita.

Gramatika eta diskurtsoa: Aholkuak emateko esapideak (15')

- Taldeetan antolatuko dira.
- Errepara diezaietela aholkuak emateko erabiltzen dituzten esaldien nolakoari. Eztabaida dezatela aholkuak emateko esan-modu egokiagorik egon daitekeen eta zergatik.
- Eman dezatela egindako lanaren berri talde osoaren aurrean.

2

Atazaurrea (5')

- Ikasleek irudiari begiratu bat emango diote, eta hiriko bizimoduaren hainbat ezaugarri bilatzeko eskatuko diegu.

Ataza: azalpena jendaurrean egiteko modua erabaki (20')

Ikasleak taldeka jarri, eta beren herri/hiriari buruzko hitzaldi bat prestatuko dute (ahoz) — interesgarria litzateke argazkiak, bideoak, mapak eta horrelako material osagarria ekartzea, azalpena ulergarriago egiteko—. Lagungarri modura, nahi izanez gero, eskematxoren bat egin dezakete, zertaz hitz egin behar duten gogoratzeko.

- Kontuan har ditzatela ondorengo hiru alderdiak:
 - a) Kutsadura eta hondakinak: zabortegia, uraren eta airearen kutsadura, zarata, kutsadura estetikoa, kutsadura elektromagnetikoa...
 - b) Natura: animaliak (arratoia, katua, hontza, zikoina, enara, txolarrea, ahatea, zisnea, belatz gorria...), zuhaitzak, parkeak, plazak, berdeguneak, landareak...
 - c) Hobekuntzarako proposamenak: aisialdirako guneak, eraikuntza eta hiri-antolaketa, berdeguneak eta bidegorriak, oinezkoen lekuak, lurrazpiko garraioa, naturaren berreskurapena, nekazaritzako eremuak...
- Taldean azalduko dute prestatutako hitzaldia. Graba itzazu azalpenok.
- Prestatu zer erantzungo liekeen haurren ondorengo galderei, eta zergatik.
 - Azalpena hasteko, zer esan dezaket aztergai horri buruz?
 - Ondoren, eztabaida bat egin behar omen dugu. Esan didate aipatzeko eztabaidatzea merezi duen zerbait.
 - Irudian gauza asko daude; banan-banan azaltzen hasten banaiz, galdu egingo dut haria...

Feedbacka (5')

- Azal ditzatela prestatutako aholkuak, eta, ondoren, entzun ditzatela grabaketak.
 - Hasieran egin al duzue azalpen laburren bat?
 - Zenbat urratsetan egin duzue azalpena?
 - Lasai iragan zarete puntu batetik bestera?
 - Amaieran ondo itxi duzu azalpena?

Atazaostea (5')

- Adieraz dezatela azalpena prestatzean zertan izan duten arazorik handiena eta zergatik: ohitura eza, hiztegi gabezia, zehaztasun falta ...


3

Atazaurrea (5')

- Ikasleei eskatuko diegu zerrendatzeko airea eta ura kutsatzen dituzten eguneroko jarduerak.

Ataza: Bideo-pasarte batean ikusitakoa oinarri, hitzaldi bat prestatu (15')

- Ikasleek 4.bideo-pasarte ikusiko dute (V. eranskina). Bertan azaltzen da isuritako petrolioak egiten duen bidea. Ikusi ahala, ikasleek idatz ditzatela ibilbide horren urrats nagusiak.
- Ondoren, ikusitako pasarte lagun, kontu egin dezatela seme-alabei lagundu behar dietela gai horri buruzko hitzaldia prestatzen. Horretarako, liburuan duten diagrama erabil dezatela:



- Bi taldetan banatu. Talde batean uraren nondik norakoak aztertu eta bestean airearenak. Pentsa dezatela zer ideia proposatu haurrei.
- Taldearen aurrean azaldu zer jaso duten diagraman eta zergatik. Graba itzazu azalpenok.

Feedbacka (15')

- Grabazioak entzun eta azter dezatela ea zaindu dituzten aurreko jardueran jendaurreko azalpenak egiteko irizpideak.

4

Ataza: Jendaurreko azalpena egiteko taula bat osatu (30')

- Ikasleek kontu egin behar dute telebistatik kutsadurari buruzko erreportaje bat grabatu dugula, haurrari lagungarri gertatuko zaiolakoan prestatzen ari den lanerako. Bi taldetan banatu, eta ikus dezatela lehen zatia (VI. eranskina).
- A taldekoek begira dezatela ea KAUSA eta ONDORIOEI buruz zerbait esaten duen. B taldekoek, berriz, ikus dezatela ea ARAZORIK aipatzen edo aztertzen duen eta ea KONPONBIDEAK proposatzen dituen. Erabil dezatela liburuko taula informazioa jasotzeko.

ARAZOAK	KAUSAK	ONDORIOAK	IRTENBIDEAK

- Talde bakoitzak aurkez dezala jasotako informazioa.
- Gero, ikusi 2. zatia (VII. eranskina), eta sakondu gaia, xehetasun gehiago izateko. Beraz, A eta B taldekoek dagokien galdera-sortaren erantzunak lortzen saiatuko dira. Azkenik, elkarri eman ulertutakoaren berri.

A TALDEA	B TALDEA
<p>Zenbat jende gaixotzen da airearen kutsaduraren erruz? Zenbat pertsona hiltzen dira Europan kutsaduraren ondorioz? Poluzioak izan al dezake zerikusia auto-istripuekin?</p>	<p>Zeinek eragiten ditu hildako gehiago: kutsadurak ala auto-istripuek? Zergatik bihurtu dira Hirugarren Munduko hiriak hain itogarri azken urteotan? Zenbat jende ospitaleraten dute bihotzekoak jota edota asma dela eta?</p>

- Eskuratutako informazioa multzokatu eta antola dezatela. Kontua da funtsezkoarekin gelditzea soilik. Horretarako, liburuan duten taula osa dezatela, puntu bakoitzeko puntu bat edo bi jasoz.

	IDEIAK	OHARRAK
Arazoak		
Kausak		
Ondorioak		
Irtenbideak		

Feedbacka (5')

- Talde bakoitzak egindako hautapena aurkeztuko du. Proposamenak alderatu, eta arrazoitu egingo dituzte.

Helburu orokorrak

- Kontzientziazteko zenbait testu labur prestatzea, kanpaina batean erabiltzeko

Helburu zehatzak

- Eskoletan banatuko den horma-irudi baterako proposamen biren artean bat hautatzea
- Esku-orri batean txertatzeko testu hainbaten artean egokiena hautatzea
- Artikulu bati amaiera emateko bi proposamenen artean bat hautatzea
- Komunitatean esku hartzea ahalbidetzen duten hainbat jardueraren inguruko iritzia ematea

Zertan den

- Zerrendatu eta sailkatu etxean sortzen diren zaborrik ohikoenak
- Eskualdeko mankomunitateak proposatutako joko bat ebatzi, hainbat arrasto erabilita
- Horma-iragarki bat egiteko, bi haurren proposamenen artean egokiena zein den erabaki
- Aditu baten azalpena entzun ondoren, argitu objektu batzuk zein zaborrontzitarra bota behar diren
- Zabor-mota ezberdinen kutsakortasunari buruzko artikulu-zati bana irakurri eta elkarri adierazi informazio hori
- Haurrek esku-orri bat osatzeko proposatutako hainbat testuren artean egokiena hautatu.
- Artikulu bat azaletik irakurri, eta bi haurrek egin dituzten iruzkinak zuzenak ala okerrak diren erabaki
- Artikuluari amaiera emateko bi haurren proposamenak alderatu, eta egokiena zein den erabaki
- Jendea arazoez ohartarazteko eta ekintzara bultzatzeko testuen ezaugarriak zerrendatu
- Ingurumen-hezkuntzarekin lotutako beste gizarte-ekintza batzuen gaineko azalpenak ulertu eta horiei buruzko iritzia eman.
- Hainbat testu-aipamen irakurri eta horiei buruz mintzatu

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (30')**

- Atazaren testuingurua aurkeztu ikasleei: mankomunitatearen lehiaketa birziklatzearen gaineko kanpainako materialak diseinatzeko.
- Ikasleek zerrendatuko dituzte zabor-poltsan aurkitu ohi dituzten hondakinak. Liburuan dituzten "poltsetan" sartuko dituzte: PLASTIKOAK / TOXIKOAK ETA PRODUKTU KIMIKOAK / HONDAKIN GALKORRAK / PAPERA ETA KARTOIA / ISURKIAK / BEIRA

Hondakinak:

- | | | | |
|--------------------|-----------------|---------------------|---------------------|
| - Oliben potoa | - Arrautzaren | - Oliba-hezurak | - Aguarrasa |
| - Zainzurien lata | azalak | - Iratzargailuaren | - Zapata-kaxa |
| - Zerealen kaxa | - Oilasko- | pilak | - Entsalada- |
| - Laranja-azalak | hondarrak | - Jogurt-ontziak | hondarrak |
| - Zartagineko olio | - Tomatea | - Garagardo- | - Supermerkatuko |
| errea | babesteko | botila | plastikozko poltsak |
| - Esnearen bricka | plastikoa | - Leungarriaren | - Kortxoak |
| - Aldizkariak | - Ardo-botila | ontzia | - Eltzeko hondarrak |
| - Kartoi mehea | - Pintura | - Etxera ailegatzen | - Lixiba-ontzia |
| - Erlojuko pila | - Patata-azalak | den propaganda | - Bonbillak |

- Zer zein poltsatara bota erabakitzean izandako zalantzak argitzeko, entzun "Etxeko zaborraren birziklapena" irrati-pasartea (VIII. eranskina), eta egiazta ditzatela egindako hautuak.
- Zalantzak argitzeaz bat, taldeka jar daitezela eta adieraz dezatela zein hondakin diren kaltegarrienak eta zergatik jasotzen diren gaika.
- Jarraian, hitz egindakoaren berri emango diote taldeari. Une egokia da hau, zaborrekin duten jokabideaz hitz egiteko.

Ataza: Haurraren galdera bati zer erantzun erabaki (25')

- Seme-alabei eskolan esan diete edari freskagarriak ez erosteko latetan, hobe dela plastikozko botiletan edota, askoz hobeto, beirazko ontzietan. Eztabaida dezatela ea egia den edo ez. Ikasleek, taldeka bilduta, haurrak egindako galderari zer erantzun eztabaida dezatela. Erantzunak arbelean jasoko ditugu.
- Jarraian, MENDE AMAIERA erreportajearen atal bat (IX. eranskina) ikusi eta bideo-pasartean aipatzen diren arrazoiak zerrenda ditzatela.

Feedbacka (5')

- Arbelean jasotakoak berraztertu, eta ikus dezatela zein diren zuzenak eta zein ez.

Ataza: Horma-iragarkiaren lehiaketarako bi testuen artean bat hautatu (10')

- Mankomunitatearen oharra irakur dezatela.

HORMA-IRAGARKIAREN LEHIAKETA

- Horma-iragarki bat egiteko testua nahi dugu
- Horma-iragarkiaren leloa hauxe izango da: ERNE ONTZIEKIN!
- Horma-iragarki hori zenbait hipermerkatutan jarriko da
- Testuak argia izan behar du, eta jarraibide zehatzak eman behar dizkio erosleari, erosketa ekologikoagoa egiteko
- Proposamen bakarra onartuko da taldeko

- Ondoren, taldean, Hodei eta Mikel izeneko hurrek idatzitako bi testuak aldera ditzatela. Kontua da gustukoena aukeratzea eta hautaketa arrazoitzea.

ERNE ONTZIEKIN!	ERNE ONTZIEKIN!
<ul style="list-style-type: none"> ◆ ZOPAK erosi beti izoztuta edo latetan; poltsakoak garestiagoak dira. ◆ USAIN-KENKARIEK ozonoari erasotzen diote. Erosi plastikozko barrak. ◆ ARROZA hobeto egongo da paperezko poltsetan. Plastikozko poltsak desegokiak dira. ◆ BARAZKI freskoak erosi eta plastikozko poltsarik edota erretilurik gabe. ◆ GAZTA erosi osorik. Ataletan edota xerratan saltzen dutenean elikagai gutxiago du. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ahal dela, ontzirik gabeko gauzak erosi; adibidez, barazki freskoak. ◆ Aprobetxatu ontzi hutsak beste gauzetarako; adibidez, higiene-produktuenak berriro bete. ◆ Aukera duzunean, erosi ontzi biodegradagarriak dituzten produktuak: papera edo kartoia adibidez. ◆ Kontuan izan plastikoa fabrikatzeko latorria egiteko baino energia gutxiago behar dela. ◆ Izoketa-prozesuan energia asko erabiltzen da.
Hodei (12 urte)	Mikel (13 urte)

Feedbacka (5')

- Arbelean ikasleek aipatzen dituzten arrazoiak bilduko ditugu. Irakurri puxikan dagoena, eta berraztertu zerrendatutako irizpideak.

(PUXIKAN)

AUZIARI ERROTIK HELDU:

Zeharka nekez aldatzen da jendearen jokabidea. Zer lortu nahi duzu? Horixe izan behar duzu garbi.

2

Atazaurrea (5')

- Herrian dituzten zabor-ontziez galdetu: gutxi-asko dauden, leku egokian...
- Adieraz dezatela ea erabiltzen dituzten, nolako arazoak ikusten dituzten...

Ataza: Mankomunitatearen esku-orrian jartzeko testua hautatu hainbat proposamenen artean (15')

- Ikasleek Mankomunitatearen lehiaketaren baldintzak jasotzen dituen oharra irakur dezatela.

ESKU-ORRIEN LEHIAKETA

- Aurten esku-orrien testua berritu nahi dugu
- Hizkuntza bakarrean argitaratuko dira (alde batetik, euskaraz eta, beste aldetik, gazteleraz)
- Ez dira elkarren itzulpena izango
- Aurkeztu proposamenak, hiru zaborrontzien marrazkietan kanpainaren leloari azalpen bat eransteke
- Aurkeztuko den testuak "ERNE ONTZIEKIN!" leloarekin bat egin behar du.

- Ondoren, taldeka jarri, eta bakoitzak "Ezagutu etxeko zaborra" artikuluko fitxetako bat irakur dezala (X. Eranskina/6 fitxa). Testuak tekniko samarrak dira; hortaz, ikasleei eskatuko diegu haurrentzat ulergarri eta baliagarri izango den informazioa bereizten saia daitezela.
- Elkarri eman diezaiotela ulertutakoaren berri.
- Fitxetan esaten dena kontuan hartuta, liburuan dauden proposamenetatik bat hauta dezatela, hau da, erabaki dezatela kasu bakoitzean hiruretatik zein den zuzena.

ZABORRONTZI HORIA

- A. Material hauek oso kutsagarriak dira. Zaborregietan nolanahi pilatuta atmosfera kutsatzen dute. Ontzi horian sartzen badituzu, erre egingo ditugu, eta, horrela, betiko desagertuko dira.**
- B. Zeure ahaleginari esker, ontzi horiek berriro erabiliko dira objektu ezberdinak egiteko.**
- C. Material hauek oso gutxitan birzikla daitezke; hala ere, komeni da beste zaborretatik bereiztea. Zaborregietan erre eta lurperatuko lirateke. Hori askoz ere kaltegarriagoa da.**

ZABORRONTZI BERDEA

- A. Beirazko materiala garbitu, eta berriro itzultzen zaie fabrikatzaileei, berrerabil dezaten.**
- B. Beira berriro erabili daiteke, ontzi berriak egiteko. Ez da merkea, baina bai zaborregian pilatzea baino merkeago.**

C. Beira material garbia da, ez da herdoiltzen eta iragazgaitza da. Horregatik, komeni da jasotzea eta berriro erabiltzea.

ZABORRONTZI URDINA

- A. Gero eta paper gehiago behar dugu, eta ez dugu zuhaitz nahikorik. Erabilitako papera birziklatu behar dugu; bestela, ez da paper nahikorik egongo.
- B. **Munduko baso asko arriskuan daude. Papera birziklatzen badugu, zuhaitz asko salbatuko ditugu.**
- C. Gero eta eskaera handiagoa dago. Jendeak paper eta kartoi birziklatua nahi du. Zeure paper zaharrak behar ditugu.

Feedbacka (5')

- Banan-banan irakurriko ditugu bederatzi esaldiak. Ikasleek esan beharko dute zein diren zuzenak.

3

Atazaurrea (15')

- "Zaborra, a zer pisua!" artikuluari beste amaiera bat emateko oharra irakurri, eta ziurtatu ongi ulertzen dutela eginbeharrekoa.

ARTIKULUARI AMAIERA EMAN

- Artikulu hau Unicefen JATUN SUNQU aldizkarian argitaratu zen lehenik
- Aurtengo kanpaina erabiliko dugu, eskola-aldizkarietan argitara emateko
- Artikulua gure beharretara egokitu nahi dugu
- Haurrek amaieran beren gustuko aldarrikapen bat idatziko dute
- Eskola bakoitzean epaimahai bat izendatuko da, eta eskolakoen artean horietako bat hautatuko da
- Argitara emandako guztien artean sari bat zozkatuko da

Ataza: Testua arretaz irakurri, eta amaierako bi proposamenen artean bat hautatu (25')

- Haurrek artikulua lehen atala irakurri dute, eta ezbaian ari dira zer ote den artikulua bidez lortu nahi dena argitu nahian. Hona hemen lau haurrek testuaren helburuari buruz esandakoak. Ikasleei "Zaborra, a zer pisua!" (XI. eranskina) artikulua eman (amaierarik gabe), irakur dezatela, eta taldean eztabaida dezatela haurren zein iritzi diren zuzenak eta zein ez.

HAURREN IRITZIAK

Artikulu honek azaltzen digu zer egiten den zaborrekin GEZURRA

Artikuluak azaltzen du legea aldatu dela eta hemendik aurrera garestiagoak izango direla ontziak GEZURRA

Idazleak nahi du gu konturatzea zabor asko sortzen dugula eta lagundu egin behar dugula zabor horrek gutxiago kutsatzeko EGIA

Artikuluak azpimarratzen du zaborrak sortzen dituztenek ordaindu behar dutela zaborrak biltzea eta birziklatzeak balio duenaren parte bat. EGIA

- Jarraian, Hodeik eta Mikelek Jatun Sunqu aldizkariaren artikuluari amaiera emateko idatzitako pasarteak irakurriko dituzte. Bi horietatik zein iruditzen zaien hoberena adieraziko dute, eta zergatik.

BAKOITZARI BEREA	AHALEGIN TXIKI BAT
<p>Gaur egun, dena kontsumoa da. Gauzak erosten ditugu duten itxuragatik. Gainera, dena oso merke nahi dugu.</p> <p>Hori ez dago ondo. Ontzi kutsagarriak gustatzen bazaizkigu, garestiago ordaindu beharko ditugu.</p> <p>Gainera, zergatik ez ditugu aprobeztatzen beste gauza batzuetarako? Adibidez, zapata kutxa bat gauzak gordetzeko erabil liteke. Horrela, nahiz eta garestiagoa izan, zerbaitetarako erabili dugu.</p> <p>Kutsatzen baduzu, ordaindu egin beharko duzu!</p> <p>Hodei (12 urte)</p>	<p>Gero eta jende gehiago konturatu da ezin dugula horrela jarraitu. Arazo asko daude, eta etorkizunean pentsatzen jartzen zarenean beldurtu egiten zara.</p> <p>Ondo bizi nahi dugu, baina zein da ordaina? Ingurumena hondatzea? Geure ondorengoei basamortu zikin bat uztea?</p> <p>Ez da asko eskatzen: zaborrak birziklatzen laguntzea eta zenbait ontziren truke gehixeago ordaintzea.</p> <p>Ohartu al zarete, batzuetan, ontzia ia barrukoa baino garestiagoa dela? Prest al zaude erosotasun apur baten truke, ingurumena hondatzeko?</p> <p>Bien bitartean, lagundu alferrikako ontziak birziklatzen.</p> <p>Mikel (13 urte)</p>

Feedbacka (5')

- Irakasleak jatorrizko testuaren amaiera emango die (XII. eranskina). Alderatu, eta hurrek idatzitako zein testu den antzekoena azalduko dute.

Atazaostea (10')

- Ikasleek liburuan duten aholku-zerrenda irakurriko dute. Ondoren, erabakiko dute horietako zein diren baliagarriak jendea konbentzitzeko helburua duten testuak eratzeko, eta zein ez. Azpimarraturiko lau horiek ez dira zuzenak.

ERANTZUNA

NOLA KONBENTZITU JENDEA, ZERBAIT EGIN DEZAN?
<ul style="list-style-type: none"> ◆ <u>Hasi zeure iritzia ematen: argi utzi zer pentsatzen duzun.</u> ◆ Arazoa konplexua baldin bada eta askoren esku badago, ez da komeni oso gogor aritzea. ◆ <u>Salatzeko jarrera izan: horrela, lortuko duzu jendea errudun sentitzea eta zeuk proposatutakoa errazago egingo dute.</u> ◆ Baikorra izan; izan ere, dena galtuta badago, zertarako egin ezer? ◆ Ez nahastu gauzak. Saiatu gauza oso zehatzei buruz hitz egiten. ◆ <u>Ez konformatu gauza txikiak eskatzearekin: jendeari gutxi eskatzen badiozu, gutxiago ematen du.</u>

- ◆ Ez ibili itzulinguruka edota ez heldu gaiari zeharbidez; gauzak argi utzi. Jendeak ez baditu gauzak garbi ikusten, nekez egingo du ezer.
- ◆ Ez galdu denbora zeure proposamena justifikatzen; jendeari esan zer egin eta kito.
- ◆ Gogorarazi gauza txikiek gauza handiak lortzeko balio dutela.
- ◆ ...

- Ondoren, berrikusi Hodeiren eta Mikelen testuak. Ikusi emandako irizpideak zeinek betetzen dituen hobekien.

ERANTZUNA

- Mikelena hobea da. Jendea bere arduraz ohartarazten du, eta pentsarazi egiten digu.
- Hodeirenak mehatxu-kutsua du. Jendeari errua leporatzen dio, baina ez du ahalegin handirik egiten jendea konbentzitzeko.

4

Atazaurrea (5')

- Eskatu ikasleei adin honetako haurrek komunitatean esku hartzea ahalbidetzen duten ekintzak zein diren adierazteko.

Ataza: Gurasoentzako hainbat proposamen irakurri, eta nork bere iritzia eman (25')

- Jardueren izenburuak irakurriko dituzte, eta hipotesiak egingo dituzte.

Izenburuak:

- Hobe denok batera
- Izan zaitetz ingurumenaren aldeko boluntarioa
- Egunerokoa aurkitu
- Desberdintasuna errespetatu
- Esan auzokoari
- Adi egon

- Taldeka, bakoitzak XIII. eranskinari dagokion "Beste iradokizun batzuk" testuko fitxetako bat irakurriko du (oharra: fitxek ez dute izenbururik izango). Horrela, bada, ikasle bakoitzak taldeko kideei emango die bertan jasota dagoen azalpenaren berri. Denen artean eztabaidatuko dute zein ote den jarduera horren izenburua.

Feedbacka (5')

- Taldeetan erabakitakoaren berri eman, adieraz dezatela zein jarduera iruditzen zaien zaila eta zein erraza.

Atazaostea (10')

- Ikasleek irakur ditzatela liburuan dituzten hainbat esaldi esanguratsu.

Praktika irakasle bikaina da
(Plinio gaztea)

Gutxi egitekotan, hobe ezer ez egitea:
ez dago hori pentsatzea baino hutsegite handiagorik
(Edmun Burke)

Lurra ez da gure gurasoen ondare, gure seme-alaben mailegua baizik
(Indiarren gogoeta)

Igelak ez du bere putzuko ur guztia edaten
(txinatarren esaera zaharra)

Ingurugiro-hezkuntza ez da hezkuntza-prozesuko alderdi batzuetara mugatzen: bizimodu berri
baten eragilea da
(Unesco)

Eta zertan zebiltzan galdetu zieten bi hargini. Batek erantzun zuen: "Harri hau bloketan ebakitzen
ari naiz". Besteak, "Katedrala eraikitzen ari den talde batekoa naiz".
(?)

Bizi zaitez xume, beste batzuk bizi ahal izateko
(Gandhi)

- Txandaka, taldeari adieraz diezaiotela esaera horiek pentsarazten diena.
- Amaieran, bakoitzak gehien gustatu zaiona zein den esango die besteei.

3. MATERIAL OSAGARRIA

A. BESTERIK NAHI?

(90')

Helburu orokorrak

- Hainbat hurrek literatur lehiaketa batera aurkeztutako testuak irakurri eta alderatzea

Helburu zehatzak

- Aldizkari batean irakurritako proposamenaren berri ematea etxekoei
- Lehiaketa baten oinarriak ulertzea eta hurrei lana egiteko orientabideak ematea
- Hurrek egindako lanei buruzko iritzia ematea

Zertan den

- Mapa kontzeptual bat osatu, landa-ingurunera egin ohi diren txangoen xehetasunak jasota
- Irakurri Karrantzako bailarari buruzko informazioa eta hurrei egiteko moduko proposamen bat prestatu
- Lehiaketa baten oinarriak ulertu eta pentsatu, parte hartzekotan, nolako testua eta zein tokiri buruz egingo luketen seme-alabek.
- Hainbat hurrek egindako testuak irakurri eta alderatu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- Mendi-irteerak aitzakia hartuta, taldeka jarrita, liburuan duten mapa kontzeptuala osa dezatela.
 - Zer egin hurrak gustura egoteko?
 - Zenbateko iraupena?
 - Nolako janaria? Non jan?
 - Zer ikusi?
 - Jantziak
 - Nola joan? Irteera-ordua, mapak...
- Besteek jakinaraz deizaietela zer jaso duten eta zergatik

Ataza: Karrantzako bailarari buruzko informazioa irakurri (XIV. eranskina), eta etxeoentzako plana prestatu (20')

- Ikasleak lau taldetan banatuko dira. Testua irakurri, eta taldeetako bakoitzak galdera bati erantzuteko informazioa eskura dezala.
 - Nolako berezitasunak ditu hango paisaiak?
 - Nolako ibilaldia egingo dugu? Nondik nora?
 - Zein herri ikusiko ditugu? Ba al dute berezitasunen bat?
 - Ba al dago toki berezirik ikusteko?
- Lortutako informazioaren berri elkarri eman diezaietela. Zalantzak argitzeko, testura itzul daitezela.
- Paisaiarekin zerikusia duen hiztegia biltzen ere saiatzeko eska izaiezu.

- Elkarrizketa bideratu: ea txango hori beren hurrei gustatuko ote litzaiekeen; zer estimatuko luketen gehien... Plan bat proposa dezatela.

Feedbacka (10')

- Haur batzuek idatzitako 'Txango bat Karrantzan' idazlana irakur dezatela (XV. eranskina). Azpimarra ditzatela haurren balorazioak jasotzen dituzten pasarteak.
- Arestian hasitako lanaren ildotik, hiztegiari erreparatzeko esan, eta zerrenda osatzen jarrai dezatela.
- Adieraz dezatela ea norberaren hurrek antzekoa inpresioa izango luketen eta zergatik.

Hiztegia (10')

- Ikasleek atazaren hasieran egindako mapa kontzeptuala osatuko dute, testuetan azaldu eta bildutako hitzak erabilia.

2

Atazaurrea (10')

- Literatur eta argazki-lehiaketaren oinarriak irakur ditzatela. Taldeka jarrita, hainbat proba egin behar dituzte ahoz. Frogok ondorengo galderei erantzutean datzate.
 - Zertarako behar dugu koadernoak?
 - Zer eraman behar dugu bizkar-zorroan?
 - Parte-hartzaileek irteeraren batera joan behar al dute? Zertara?
 - Testuek argazkiei buruzkoak izan behar al dute?
- Laburbildu oinarri garrantzitsuenak arbelean

Ataza: Lehiaketarako oinarrien pasarte bat zehaztasunez ulertu (15')

- Taldeka, adieraz dezatela beren seme-alabek lehiaketan parte hartzekotan, zein tokiri buruz jardungo luketen. Inork izango balitu ingurune naturalean egindako txangoren bati buruzko argazkiak, ekar ditzala eta egin dezala txangoaren azalpena: nora, nolakoa den, merezi duen... (aurreko saioan eskatu beharko diezu ikasleei materiala ekartzeko)
- Lehiaketaren oinarrien bigarren zatia irakur dezatela. Testuan hainbat hutsune dituzte. Osa ditzatela hutsuneok falta diren hitzak dagokien tokian jarritz.

ERANTZUNA

LITERATUR GENEROA: NORBERAREN AUKERAN

Zeuek aukeratu zer-nolako testua idatzi nahi duzuen. Hala ere, hementxe dituzue iradokizun batzuk:

- Kanpoko lagun bati edo ikusi duzuen animalia bati zuzenduriko **gutuna**.
- Lekuari buruzko xehetasunak jasoko dituen **azalpena**.
- Gune horretan giroturiko alegiazko nahiz benetako **elkarrizketa**.
- Paisaiaren **deskribapena**, edo monumentu historiko garrantzitsu, eliza, baserri nahiz beste zerbaitena (bizipenak, sentipenak edo erakargarriena adieraziz).
- **Narrazioa**: leku horretan gertatutako pasadizoren bat (guztiz alegiazkoa nahiz benetakoa).
- **Olerki** edo bertsoen bat.

Feedbacka (10')

- Ikasleek, taldeka, presta dezatela genero horien definizio moduko bat, hurrei aurkezteko. Nahi izatera, hiztegiak eta jarri beraien eskutan.

Atazaostea (5')

- Adieraz dezatela beren hurrek zein genero hautatuko luketen.
- Halaber, zer gomendatuko lieketen beraiek eta zergatik.

Helburu orokorrak

- Ortografia-arazoak eta zalantzak ebazteko baliabideak ezagutzea eta erabiltzea

Helburu zehatzak

- Ortografiaren gainean hurrek eta gurasook dugun jarrera aztertzea
- Euskara Batuaren ortografi arauak kontsultatzeko baliabideak ezagutzea eta erabiltzea
- Xuxen zuzentzaile ortografikoa Internetetik jaisten ikastea

Zertan den

- Ortografiari buruzko galdeketa bati erantzun eta horretaz hitz egin
- Ortografiari buruzko solasaldi bat entzun; solaskideek egiten dituzten azalpenak ulertu eta erantzuteke gelditzen den galdera batez eztabaidatu.
- Zenbait hitzen idazkera egiaztatu Hiztegi Batuan
- Zenbait idaztarau kontsultatu Euskara Hobetzen webgunean
- Internetetik Xuxen zuzentzailea jaisteko jarraibideak ulertu.
- Haur baten testuan Xuxenek okertzat azpimarratutako hitzak zuzendu.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (5')**

- Ikasleei galdetuko diegu zer moduz moldatzen diren beren haurrak ortografiarekin. Zerrenda ditzatela buruhausterik ohikoenak.

Ataza: Ortografiaren inguruko galdeketa bati erantzun, eta gai horri buruzko elkarrizketa bideratu (20')

- Liburuan dauden galderak ikasleen artean banatuko ditugu. Bakoitzak galdera hori egingo die banan-banan bere ikaskideen erdiei behintzat.

1. Eskola-garaian, kosta egin al zitzaizun ortografia zuzen erabiltzea?
2. Nolako ariketak egiten zenituzten eskolan, ortografia lantzeko? Gustukoak al zenituen?
3. Nola moldatzen zara orain? Ba al duzu arazorik?
4. Zer egiten duzu zalantza bat sortzen zaizunean?
5. Saiatzen al zara zuzen idazten: gutunak, etxeakoentzako oharrak, erosketak egiteko zerrenda...?
6. Zeure seme-alabek kezka berezirik izan al dute inoiz?
7. Ortografiak garrantzi handia al du? Zergatik?
8. Zure iritziz, ortografia nahikoa lantzen al da eskoletan?
9. Ortografia erraztearen aldeko al zara?
10. Euskara Batuaren ortografi arauak ezagutzen al dituzu?

- Ikasleek jasotako oharrak ordenatu egingo dituzte. Ondoren, taldeari emango diote emaitzen berri eta zein ondorio atera dituzten.

Ataza: Ortografiaren inguruko solasaldi bat entzun; solaskideek egiten dituzten azalpenak ulertu (25')

- Ikasleek, taldeka jarrita, liburuan dituzten galderei erantzungo diete.

- Nola idazten duzue: ordenagailuz ala eskuz?
- Zaintzen al duzue ortografia?
- Zergatik uste duzue gaurko gazteek egiten dituztela hainbeste akats ortografiko?
- Euskaldunok ba al dugu berezitasunen bat gai honetan?

- Txandaka esaldi bana asmatuko dute liburuan dituzten egiturak erabilita. Esaldiek ortografiaren jardungo dute. Irakasleak arbelean jasoko ditu.

1. **ona da**
2. **saiatzen naiz**
3. **espero dut**
4. **ortografiak laguntzen du**
5. **gehiago gustatzen zait**
6. **harritzen nau**
7. **ahal badut**
8. **nahiago dut**
9. **txikitatik ikasten dugu**
10. **ohitura dugu**

- Irratiko pasartea entzun dezatela (XVI. eranskina). Entzun ahalean, saia daitezela zehazten ea arbelean dauden ideiak aipatzen diren edo ez.
- Bigarren aldiz entzungo dute, eta solaskideek zer esan duten idatziko dute ondorengo esakuneak erabilita.

- **Nahiago dut.....**
- **Saiatzen naiz**
- **Ahal badut.....**
- **Gehiago gustatzen zait**
- **Ohitura beti izan dugu**
- **Txikitatik ikasi dugu**
- **Espero dut.....**
- **Ona da**
- **Harritzen nau....**
- **Ortografiak laguntzen du.....**

- Gero, hartu dituzten oharrak alderatuko dituzte. Horiekin esaldiak taxuz idatziko dituzte.

Feedbacka (15')

- Grabazioaren transkripzioa erabiliko dute arbelean dauden ideiak aipatu diren edo ez egiaztatzeko eta egindako esaldiak esandakoekin bat datozen edo ez ikusteko.

Atazaostea (5')

- Elkarrizketa bideratu. Amaiera aldera, solaskide batek zera esan du: susmoa duela euskaldunok ez ote dugun berezitasunen bat gai honetan, euskaldunok jarrera berezia ote dugun ortografiaren aurrean. Elkarrizketan adieraz dezatela ea ados dauden solaskide horrek esandakoarekin.

2

Atazaurrea (5')

- Ikasleei galdetuko diegu ea, ortografiarekin zalantzak dituztenean, ba ote dakiten nora jo eta nola argitu.
- Eskatuko diegu, halaber, azaltzeko zer dakiten euskara batuaren gaiaren inguruan.

Ataza: Zenbait hitzen idazkera egiaztatu Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan (10')

- Liburuan dauden hitz bikoteen artean zein den zuzena erabakitzen saiatuko dira.
- Egiaztatzeko Hiztegi Batua erabiliko dute (www.euskaltzaindia.net). Irakasleak liburua eramango du, edota interneten egingo dute kontsulta.

ERANTZUNA

IBAI
KONTUAN HARTU
HERTZAIN
ALKAR
IRITZI
IHARDUN
JOSTAGAILU
TXONTXONGILO
GORPUTZ
JARRAITUA

HIBAI
KONTUTAN HARTU
ERTZAIN
ELKAR
ERITZI
JARDUN
JOSTAILU
TXOTXONGILO
KORPUTZ
JARRAIA

Ataza: Zenbait idaztarau kontsultatu EUSKARA HOBETZEN webgunean (20')

- Liburuan dauden hitz bikoteen artean zein den zuzena erabakitzen saiatuko dira.
- Egiaztatzeko EUSKARA HOBETZEN webgunea erabiliko dute (www.habe.org/ikaslearengunea) Irakasleak kontsultarako orriak inprimatuta eraman ditzake.

EMAN ERAZI
BADATOR
BAIKARA
SEIEHUN
HORI EGINEZ GERO
HAMAIRU
HILAREN LAUAN
ORDU BATA T'ERDIAK
BERROGEITAHIRU
OHIZKO ARAZOAK

EMANARAZI
BA DATOR
BAIT GARA
SEIREUN
HORI EGIN EZKERO
HAMAHIRU
HILAREN LAUEAN
ORDU BATA ETA ERDIAK
BERROGEITA HIRU
OHIKO ARAZOAK

3

Atazaurrea (5')

- Ikasleei galdetuko diegu ea zenbatak dituzten ordenagailuan euskarazko programak (Windows, Office, Panda-Titanium, Xuxen..).
 - **Zuetako zenbatak duzue ordenagailua?**
 - **Ba al dakizue nola jaitsi programak Internetetik?**
 - **Jakin nahi al duzue nola lortu Xuxen zuzentzailea?**

- Era berean, galdetuko diegu ea badakiten Xuxen internetetik jaisten. Eta, ondoren, adierazi www.euskadi.net helbidetik programa ordenagailura jaisten ahaleginduko gara .

Ataza: Internetetik Xuxen zuzentzailea jaisteko jarraibideak ulertu (10')

- Ikasleek bakarka irakurriko dituzte programa ordenagailura jaisteko ematen diren instrukzioak.
- Taldeetan jarrita, saia daitezela zalantzak elkarrekin argitzen.
- Liburuan dituzten galderei erantzungo diete, zalantzak argitzeko.
 - Neuk ez dut Xuxen izan inoiz ordenagailuan. Orduan, ezer berezirik egin behar al dut?
 - Neuk Xuxen II dut. Zer egin behar dut?
 - Nik badut Xuxen I, baina ez nuen Internetetik hartu; bere garaian erosi egin nuen. Kontuan hartu behar ditut ohar horiek?
 - Zer da "Hasi > Ezarpenak > Kontrol-panela"?

Feedbacka (5')

- Aldera ditzatela erantzunak.
- Zerbait argitzeke gelditu bada, idatz dezatela e-mail bat Xuxenen orrian dagoen helbide elektronikora, laguntza eskatzeko.

ERANTZUNA

Neuk ez dut Xuxen izan inoiz ordenagailuan. Orduan, ezer berezirik egin behar al dut?	EZ. Ohar hauek Xuxen zaharra desinstalatu eta berria jartzeko dira soil-soilik.
Nik badut Xuxen I, baina ez nuen internetetik hartu; bere garaian erosi egin nuen. Kontuan hartu behar ditut ohar horiek?	Bai, saretik jaitsi izan banu bezala.
Neuk Xuxen II dut. Zer egin behar dut?	Ezer ez. Interneten bertsio hori dago eta.
Zer da "Hasi > Ezarpenak > Kontrol-panela" ?	Ordenagailuaren pantailan ikusiko dituzun funtzionalitateak.

Atazaostea (20')

- Emaiezu ikasleei XVII eranskinean duzun testua formatu elektronikoa. Saia daitezela azpimarratuta agertuko zaizkien hitzak zuzentzen, XUXEN erabiliz.
- Ohartarazi itzazu XUXENek hainbat akats azpimarratuko dizkiela; ez denak

4. ERANSKINAK

I. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. ETB: 00.55.23)

Iragarkia

Puntu berdedun ontziek eskatzen dizute bereizteko eta gaika biltzeko ontzietan uzteko, gure ingurunea zaindu eta babestu beharra baitugu. Honela, denok elkar lanean, iaz milioi bat tona ontzi baino gehiago berreskuratu genuen. Puntu berdea, bereizi birziklatzeko.

II. ERANSKINA

(2. bideo-pasartea. ETB: 00.56.01)

Autobus magikoa

Autobus magikoa, mesedez? Autobus magikoa? Autobus magikoa? Autobus magikoa? Autobus magikoa, autobus magikoa, autobus magikoa? Autobus magikoa, autobus magikoa, mesedez? Erantzun, autobus magikoa!

- Autobusa Sailkatu duzu birziklatu beharreko papera, Muski? Hartuko al dut? Bai, autobus magikoa, esan...
- Lehen deia Kaixo, birziklatzeari buruzko saioa dela eta, badut galdera bat.
- Autobusa Idatziz jaso beharko dut, paper-mutur bat, mesedez.
- Lehen deia Kaixo; hor zaude?
- Autobusa Bai, barkatu.
- Lehen deia Inguruotan daukagun birziklatze-lantegian ez dute ezer berregiten, Marfiren lantokian bezala.
- Autobusa Normala da. Izan ere, hiru lekutatik pasatu behar baitu zaborrak, berri bilakatu aurretik. Lehenik, materialak berreskuratzeko lantegira doa. Gero, sailkatu eta bildu ondoren, tratamendu-lantegietara bidaltzen da; han desegin, garbitu eta urtu egiten dute. Eta, gero, birfabrikatze-lantegira garraiatzen dituzte tratamendu-lantegietan prestaturiko materia oinarrizkoak, eta gauza berriak egiten dituzte; adibidez, jostailuzko soldadutxoak.
- Lehen deia Interesgarria oso! Eskerrik asko!
- Autobusa Ez horregatik. Agur. O, ez! Beste dei bat. Ekarriko al didazu papera, Muski?
- Autobusa Bai, autobus magikoa, esan?
- Bigarren deia Aizu, sinesgaitza egiten zait eskola zabortegi bilakatze hori.
- Autobusa Ondo da, bai. Agian, esajeratu xamarra zen, baina birziklatzerik gabe jendeak zabortegi gehiago beharko lituzke, hondakinak botatzeko.
- Bigarren deia Gure amonak dioenez, birziklatzearen kontua aspaldikoa da. Beiragileek 3000 urtetik gora omen daramatzate beirazko botilak birziklatzen.
- Autobusa Eta ez dio gezurrik, papera ere ehundaka urte dira birziklatzen dela. Lehendik birrindu eta paper-ore bilakatuz, hortik paper berria egiteko; ordudanik hona, ordea, birziklatzea negozio-iturri bilakatu da. Jendea metodo berriak eta hobeak asmatuz doa etengabe. Badakizu: mundua baitabil jirabiran.
- Bigarren deia Eskerrik asko.

Autobusa

Ez horregatik. Ohartxo bat utzi beharko diot ekoizleari. Aizu, Muski, non duzu paper-mutur hori? Paper birziklatu eta berrerabilia! Ez dago gaizki, baina hobe izango dut ahozko mezua uztea, paperean idatzi ordez.

III. ERANSKINA

(3. bideo-pasartea. ETB: 00.58.34)

Mikrotxokoa: "futbolina"

Futbola gustuko dutenentzat asmakizun aproposa dakargu, etxetik atera gabe baloia astintzeko moduko tramankulua: futbolina! Hauxe da eskuratu beharko duzun materiala: kartoizko kaxa bat, kartoifin (kartoi mehe) berdea, lekeda (kola), lastotxoak, rotulki (errotuladore) zuria, saretxo bi, plastilina, kanikatxo bat eta futbolzaleen argazkiak, erregela eta haria, guraizeak, konpasa eta arkatza.

Futbolean jokatzeko zelaia guztiz beharrezkoa da; guk, horretarako, kaxa hau hartu dugu. Dena den, ikus dezakezuen bezala, oso sakona da; horregatik, neurrira moztuko dugu, oinarritik hasita, bost zentimetrora. Eta orain mozten hasiko gara, guraizeak hartu, eta ekin lanari. Dena berdindu ostean, albo bietan zuloak irekiko ditugu, bi zentimetroko altuera eta bost edo sei zentimetroko zabalera. Guraizeekin moztu... kitto, zelaia prest.

Orain, mahaia txukunduko dugu, eta kaxa barruko azalera hartu eta neurri bereko kartoifin berdea moztuko dugu. Zelaia mozten hasiko gara, eta, jarraian, rotulki (errotuladore) txuriarekin futbol-zelaia marraztuko dugu. Zer? Ez dakizula nolakoa den futbol-zelaia? Marra luzeak alboetan, beste batzuk erdian, borobilak eta areak. Oso erraza da; ikusi, bestela! Eta penalti-puntua. Marraztu dugu gure zelaia; beraz, sobran dagoena zakarrontzira botako dugu, eta, jarraian, marraztutako zelaia kaxan itsatsiko dugu. Horretarako, atzean lekeda sendo emango diogu. Ondo?

Listo gure zelaia itsatsita dago. Galdera: zer da futbola zaleturik gabe? Guk ere zaletuak jarriko ditugu, gure taldeak ondo joka dezan, eta, horretarako, egunkaritik jende multzoen argazkiak moztu ditugu. Hauei atzean lekeda emango diegu, eta, ondoren, zelaiaren alboetan itsatsiko ditugu. Zaletuak lasai asko euren eserlekuetan jarri ditugu, eta, orain, lastotxoak hartu, eta ateak egiten hasiko gara. Horretarako, neurri berean moztuko ditugu lastotxo guztiak, eta bata bestearen barruan sartzen hasiko gara. Bigarren atea ere hementxe daukagu, ateak egin ditugu, baina ate guztiek euren sarea behar dute; sare-zati bat hartu, eta ate bakoitzari sarea egingo diegu. Orain, sarea atera lotzeko haria erabiliko dugu; horrexegatik, hari-zati bat hartu, eta pixkanaka-pixkanaka sarea eta lastotxoak lotzen joango gara. Patxadaz hartu beharreko lana da hau. Ateak prest ditugu; beraz, orain ateak zelaira itsasteko, plastilina-bolatxo bi hartuko ditugu, ateak gainean jarri eta zelaiaren itsatsiko ditugu. Amaitu aurretik, sareei, ateko sareei, zuloak bi egingo dizkiegu, bertatik lastotxoak sartzeko eta hauen bidez baloiari putz egiteko.

Eta azkeneko pausoa, eta, agian, garrantzitsuena. Futbolean jokatzeko zer da beharrezkoa, guztiz beharrezkoa? Baloia. Eta, horregatik, guk pisu handiegirik ez duen kanikatxo bat lortu dugu. Jantzi duzue zuen taldearen elastikoa? Aurkaria lortu duzue? Beno, bada, hartu arnasa sakon, eta baloiari egin... putz.

IV. ERANSKINA

Jendaurrean hitz egiteko beldurra

" Egin daitekeenaren gaineko akordioak zedarritzen ditu zure mugak. Alda ezazu akordioa, eta muga gainditu ahal izango duzu...".

Wayne W. Dyer

Jendaurrean hitz egiteko beldurra hainbat sorburu ditu; besteak beste, beldurra diogu kritikari, porrotari, jendea begira izateari, gaia ez menderatzeari, eta, baita ere, entzuleen erantzunari. Estuasun horren oinarrian esperientziarik eza dago, edo zenbait jendek lankideak ikusi ditu arrakasta txikiko hitzaldiak ematen eta gauza bera gertatzeko beldur da, edo batek baino gehiagok esperientzia gaiztoak izan ditu aurreko saiakera bat baino gehiagotan. Pertsona horiengan guztiengan estuasunak porrot garbia eragin dezake, baldin eta esku hartze egokia bideratzen ez bada.

Esku hartzearen alderdi garrantzitsuena planifikatzean datza. Gaiaren edukia eta dugun denbora aintzat hartzeaz gain, oso kontuan hartu behar dira entzuleen ezaugarriak. Era berean, mesederako izaten da hitzaldi laburrak prestatzea aurkezpenekin ohitzen joateko.

Beldurrik ohikoenetakoa izaten da esatera gindoazena ahaztea. Horrelakoetan tentazioa izaten da eskura edukitzeko ohar ugari idaztea (hitzek hitzekoak ere bai). Hitz egin ahalean oharrak sailkatzen aritu behar izateak, ordea, eragotzi egin ditzake hitzaldiaren arintasuna eta entzuleen arreta. Hori gogoan, komenigarria da gaia behin eta berriro patxadaz irakurtzea, eta laburpena orrialde bakarrera ekartzea, punturik nagusienak kolore bizietan azpimarratuz, gero erraz aurkitzeko moduan. Era berean, ez da ahaztu behar hitzaldiarekiko beldurra lehen minutuetan finkatzen dela batez ere, eta horrexegatik komenigarria dela hasierako esaldiak buruz ikastea, eta behin eta berriz saioak egitea, berbaldia erraz egin arte.

Umorea nahitaez erabili nahi izateak ondorio tamalgarriak izan ditzake, batez ere, entzuleak ezezagunak baldin badira. Oinarrizko araua da umorea saihestea, harik eta gaia erabat ezaguna den arte eta konfiantzaz eta malgutasunez garatzen joan arte, eta entzuleek hizlaria ezagutu arte. Hobe da itxura serioa ematea, barregarri agertzea baino!

Aurkezpen egokiaren beste alderdi garrantzitsu bat da estuasunaren osagai somatiko eta kognitiboak ezagutzea eta horiei aurre egiteko esku hartze egokiak egitea.

Jendaurrean hitzaldi bat ematerakoan hankak urduri ibiltzea, eskuekin, arkatzeekin edo paperekin jolasean jardutea, edo begiak ohar idatzietatik kendu gabe edukitzea konfiantzarik eta gaitasunik ezaren seinale dira. Jendaurrean jarrera lasaia eta segurua erakutsi behar da. Hizlariak aretoan tarte bertsura dauden hainbat pertsona aukeratu behar ditu, eta zuzen eta patxadaz begiratu behar die hitzaldia ematen ari den bitartean. Horrela jokatzuz gero, areto osoari ari zaio eskaintzen arreta.

Entzuleen galderak ere kezka iturri nabarmena suerta daitezke hizlari larrituarentzat. Etxeko lan garrantzitsua da hitzaldiaren gaiaren gainean ager daitezkeen arrazoizko galderak prestatzea. Horrek hizlariaren gaiarekiko konfiantza handitzen du, eta galdera zailak egiten dizkiotenerako saio eraginkorrak egiteko aukera ematen dio. Horrela, saioak egin ditzake galdera baten erantzuna ez dakienarako, eta egoera horretako ezustekoak eta oztopoak gainditzen ikasi, eta, aldi berean, hutsuneak dituela aitortzerakoan behar besteko konfiantza erakusten ere ikasi.

Gloria Marsellach Umbert - Psikologoa

V. ERANSKINA

(4. bideo-pasartea. ETB: 01.04.21)

Denok bizi gara hemen
(petrolio zikinak egiten duen bidea)

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Denon artean lortuko dugu erraz,
has gaitezen denok lan horretan, beraz.
Abere guztiak anaiak ditugu,
planetan guztiok bizi behar dugu.

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Lurra dugu etxea eder eta bakarra,
zintzoki jokatzeko lan eta beharra.
Zaborra eta kea dira jaun eta jabe,
gizaki ugari dira lotsagabe,
tinko jokatzeko ordua heldu da,
Lurra salbatzeko modu bakarra da.

Lurra gure etxea da, denok bizi gara hemen.
Zaintzea da gure eginkizun, guztiok dugu betekizun.
Sekulakoa badirudi ere, ez da horren handi.
Airea batetik bestera, ura bezalaxe.
Errekara zerbait jaurtiz gero, itsasora da helduko,
eta, orduan, noraino ez ote da iritsiko?
Gizaki bizidun guztiak bizi behar dute,
handi edo txiki, eder edo itsusi,
landare edo abere, intsektu edo martsupialio,
arrainak eta hegaztiak, denok nahi dugu bizi.

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Lurra dugu etxea eder eta bakarra,
zintzoki jokatzeko lan eta beharra.
Lurraren zatitxo besterik ez gara,
landare eta abere guztiak bezala,
ahalegin gaitezen lurraren babesean.
Denok bizi gara mundu... honetan.
Denok bizi gara hemen!

VI. ERANSKINA

(5. bideo-pasartea. ETB: 01.07.28)

Hiriko bizitza

- Gizona** Zoritxarrez, hiri gehienak motordun ibilgailuz eta jendez beteta daude. Ziurrenik, hiri gehienetan arazoa planifikazio falta da; alde batetik, zarata, kea, poluzioa, etxebizitza kaxkarrak, merkataritza-gune itsusiak eta kale bihurri eta ondo antolatu gabeak ditugu; bestaldetik, lorategi gutxi eta hiritarrak egoteko leku murrizak. Horrenbestez, hiriak pertsonentzako bizileku ez oso onak bihurtu dira.
- Andrea** Jendea beldurtu nahi dugula ematen du, eta ez da hala, mundu honetako hiri guztiak ez baitira berdinak.
- Gizona** Zalantzarik gabe, Iparreko eta Hegoaldeko hirien artean aldeak daude Gauza bera mendebaldeko eta ekialdekoen artean; Mendebaldeko hirietan jendea herri txikietara itzultzen hasia da. Hirugarren Munduan, aldiz, kontrakoa da joera. Horren ondorioz, biztanle-kopurua izugarri handitu da, eta administrazioa ez da gai, jende guzti hori kalitatezko bizimodua emateko.
- Andrea** Dena dela, zorionez, gero eta leku gehiagotan piztu da hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko kezka. Orain urte batzuk, utopiko ziruditen asko horiek, agintariei burutik pasatu ere ez zitzaizkien egiten.

VII. ERANSKINA

(6. bideo-pasartea. ETB: 01.09.50)

Ingurune kutsatua

- Andrea** Entzun ditugunak entzunda, a zelako etorkizun latza daukagun. Lur planeta itogarri bilakatzen bada, ezin izango dugu bertan bizi, ez da batere osasuntsua izango. Honela jarraituz gero, zientzia fikziozko pelikula eta liburuetan kontatzen diren istorio sinestezinak egia bihur daitezke, eta, beharbada, beste planeta batzuetara joan beharko dugu bizi ahal izateko. Oraindik, baina, gure eskuetan dago hori saihestea.
- Gizona** Gure birikek aire garbia eta purua arnastea nahi badugu, autoek sortzen duten isurketa kutsagarriak kontrolatu beharko ditugu.
- Andrea** Ba al zenekien eguratsaren poluzioak errepideetan gertatzen diren istripuek baino hildako gehiago eragiten dituela?
- Gizona** Benetan diozu? Egia izan daitekeenik ere...
- Andrea** Hiri handietan, adibidez, autoak dira kutsaduraren eragile nagusiak. Sinestezina bada ere, trafikoak eragindako poluzioak zerikusia izan du hogeita bat mila lagun heriotzarekin; are gehiago, autoaren kutsadurarengatik hirurehun mila haur gaixotzen dira bronkitisarekin urtero, hamabost mila lagun bihotzekoak jota ospitaleratzen dituzte eta, bostehun mila larrialdi izaten dira asma dela eta.
- Gizona** Datu handiak dira bai, handiegiak, akaso. Ba al dakizue Europan laurogei lagun hiltzen direla urtero autoen kutsadura dela eta?
- Andrea** Laurogei mila, izugarria da, baina nola gertatzen dira heriotza eta gaixotasun hauek?
- Gizona** Poluzioaren eragina ez da zuzena, kutsadurak larriagotu egiten ditu, berez heriotza sortzen ez duten gaixotasun kronikoak, batez ere bihotzeko eta biriketako gaitzak. Trafikoaren poluzioa, gainera, airea zikintzen duten bestelako elementu kutsagarriak baino arriskutsuagoa da.

VIII. ERANSKINA

(7. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 01.13.04)

Etxeko zaborraren birziklapena

Irratia Pentsa, pertsona bakoitzak kilo t'erdi zabor sortzen dugu egunero, eta mota desberdineko zaborra, gainera; sobrako janaria dela, pilak direla, eta hondakin elektrikoak, erabilitako paperak, ontziak, zabor asko eta askotarikoak, zalantzarik gabe. Suposatzen da zabor-mota bakoitzak bere lekua duela herriko kaleetan, kolore desberdineko zakarrontziekin dekoratu zizkigunetik; baina, gero, koloretako ontzi horien aurrean jarri, eta zer esango dizuegu? Ba, ez dugula asmatzen nora eta nola bota behar dugun zerbait. Eta gaur, irakaslea hartuta, gure etxeko sukaldean sartuko gara zaborrak botatzen eta antolatzen ikastera.

Irratia Mantala jantzita, Enrike Enparantza, ongi etorri Babeleko sukaldera.

Enrike Bai, hola; arratsalde on.

Irratia Zu Sasieta Mankomunitateko etxeetako hondakinen kudeatzeaz arduratzen zara, ezta? Teknikoa zara, nolabait ere?

Enrike Bai.

Irratia Eta gaur sukaldeko zalantzak argitzen lagunduko diguzu, saiatuko zara?

Enrike Bai, zerbait egingo dugu.

Irratia Nola antolatu behar dugu sukaldea? Non jaso beharko genuke zaborra?

Enrike Bai, beno, lehendabizi esan, birziklapena dela borondatezkoa, guk ez dugula inor obligatzen. Orduan, beraz, norbaitek baldin badauka borondate hori, nik esango nuke gutxienez bi zabor poltsa behar direla: bata botatzeko birziklatu ezin daitezkeenak eta beste bat botatzeko ontziak; hau da, edukiontzi horira botako ditugunak: plastikoak metalezko ontzi eta tetrabrikak. Hauek nahiz eta pisuz gutxi izan, gero bolumen handia hartzen dutelako, esaten da laurden bat izaten direla horrelako ontziak. Gero, kristalezko edo beirazko botilentzako edo paperentzako, nik, normalean, nire etxean jartzen dut fregadera ondoan, gutxiago sortzen delako eta sortu ahala jaitsi egiten dugulako.

Irratia Beraz, bi...

Enrike Bi, gutxienez, eta, bueno, nahi izanez gero...

Irratia Hiru edo lau.

Enrike Eta, nahi izanez gero, hiru edo lau; bai, lau jarri ditzakezu, ez dago problemik.

Irratia Eta ez al dago dena batera erosterik, kit hantzeko ez dute... ez duzu hori pentsatu egitea, askoz ere erosoago izango litzateke guretzat.

Enrike Bai, nik ezagutzen duten kitak, oraingoak, izaten dira bikoak; hirukoak ere badaude, baina oso txikiak geratzen dira. Orduan, normalen, dendan erosi ditzakezunak bikoak izaten dira, orain esan duguna botatzeko: ezin direnak birziklatu eta besteak botatzeko.

Irratia Ba, bi, behintzat, baditugu.

Enrike Bai, gure etxeak nahiko txikiak izaten dira.

- Irratia Has gaitezen zakar-poltsekin, banan-banan. Beira-ontzia, zer sartu beharko genuke hemen? Berdin al du beira txuria edo berdea izatea, esate baterako?
- Enrike Bai, orain bai, lehenago garai baten egoten ziren bi edukiontzi: txuriak botatzeko kolore gabeko kristalak eta beste batzuk berdeak izaten zirenak; orain ez dago problemik, denak batera.
- Irratia Hori zalantza izatea, botako al dut, ez dut botako... bota lasai!
- Enrike Bai, gertatzen dena oraindik koloredun edukiontzi batzuk gelditzen direla txurik eta berdeak, baina, bueno, bota daiteke edozer gauza, beno edozer gauza, beirazkoak badira.
- Irratia Beirazko edozer gauza.
- Enrike Beirazko edozer gauza bota daiteke, ezin dena bota dira, adibidez, da bonbillak.
- Irratia Bonbillak ez.
- Enrike Bonbillak ez dira bota behar, fluoreszenteak ez dira bota behar.
- Irratia Eta horiek nora?
- Enrike Horiek zaborretara, zeren ezin dira birziklatu.
- Irratia Eta horiek dendara eraman beharko genituzke? Edo...
- Enrike Fluoreszenteak eraman daitezke.
- Irratia Arriskutsuak direlako, ezta?
- Enrike Leku batzutan fluoreszenteak ere birziklatzen dira; adibidez, guk Goierrin-eta aukera hori ematen dugu, ez dago bilketa bat prestatuta horretarako berezi, baina aukera hori ematen dugu. Garbigunetara eraman daitezke, eta handik birziklatzera.
- Irratia Baina, gutxienez, ontzi hauetara ez, beira bai, baina ez bonbillarik, ez fluoreszenterik.
- Enrike Ezta ispilurik ere.
- Irratia Ispilua ere ez.
- Enrike Ispiluak beira badaukate, baina badaukate beste gauza bat atzetik, beltz hori, horrekin ezin dira birziklatu .
- Irratia Eta botilak, izaten dira kortxoak, tapak eta horiek ez, edo bai?
- Enrike Hobe ez baduzu botatzen, gero garbitu egiten delako, baina hori birziklatzeko kortxoak eta ez dute balio. Beirarekin egiten dena da Arabara eramaten da, han dena txikitzen dute, ondo garbitu eta azkenean bakarrik gelditzen da beira, orduan, kortxok, tapak eta horrelako gauzak ez dute ezertarako balio.
- Irratia Traba egiteko, etxean bezalaxe.
- Enrike Hori da.
- Irratia Garbitu egin beharko genuke guk ontzi hori bota aurretik.

Enrike Ez da beharrezkoa, ez beraiek garbitzen dutelako gero, ondoren.

Irratia Plastikozko poltsa?

Enrike Bai.

Irratia Eta patata jaten zelako inbidia arratsaldeko ordu honetan. Bueno, plastikozko ontzietan zer sartu beharko genuke?

Enrike Bai, beno, kalean daukagun edukiontzi hori da, botatzeko plastikozko ontziak, brikak eta metalezko ontziak, orduan hor sartzen dira errefresko-botila guztiak, xaboi pote hauek, ba, ez dakit, horrelako pote guztiak.

Irratia Tetabrikak... den-denak?

Enrike Tetabrikak baita.

Irratia Askotan, ez dakigu zein materialez eginak dauden, eta, askotan, zalantzak izaten dugu.

Enrike Tetabrikak eramaten dute kartoia, eramaten dute, baita ere, plastikoa eta aluminioa; beno, hori edukiontzi horira, nahiz eta material oso desberdinak izan, gero guk jasotzen ditugunean egiten dugu sailkapen bat.

Irratia Sekulako lana izango da hori, ezta?

Enrike Bai, eskuz egiten da; esaten den bezala, teknologia digitala da, eskuz egiten delako. Bai, orain Gipuzkoako gehiena Legazpira eramaten dugu, eta Legazpin egiten da sailkapen bat, alde batetik plastikoak joaten dira; plastikoan barruan, gainera, famili desberdinak daude: PVC dela, politilenoa dela, PET eta abar. Sailkapen hori ere egiten dugu.

Irratia Eta yogurra hustu eta tapa hori?

Enrike Tapa...

Irratia Zer egingo dugu tapa horrekin, tapatxoarekin?

Enrike Tapa hori, zaborretara bota daiteke, ez dugulako birziklatuko.

Irratia Ez da birziklatzen, yogurra...

Enrike Yogurra bai.

Irratia Baina tapa ez.

Enrike Ez. Eta gero jendeak zalantza izaten duen gauza bat da supermerkatutako poltsak ea bota daitezken, horiek ere bota daitezke birziklatzen direlako bai. Eta besterik, horrela... musikako kasetak eta ezin dira bota.

Irratia CDak ere ez.

Enrike Ezta.

Irratia Gutxienez horra ez.

Enrike Bota behar dena da beti plastiko bakar batez egindako ontziak.

Irratia Eta, esate baterako, botila plastikozkoa bada, tapa bota dezakegu?

Enrike Tapa, bota daiteke, baina, ahal bada, ez bota dena batera, ez bota...

Irratia Kendu tapa.

Enrike Kendu tapa, eta bota; bakoitza bere aldetik

Irratia Oso ondo, lana piska bat aurrezteko.

Enrike Bai.

Irratia Aizu, eta zabaldu berria dugun... patatak jan ditugu, eta pixka bat egarria sartu zaigu.

Enrike Orain dator errefreskoa.

Irratia Lata bai, ezta?

Enrike Lata bai.

Irratia Txikituta, edo nola sartu behar dugu hau?

Enrike Honbre, ba, nahi dezuten bezala; ez, berdin zaigu. Lata hori bai ez dugula kentzen eskuz, hori iman batek kentzen ditu, iman baten azpitik pasatzen denean erakartzen du, eta berak bakarrik botatzen du zaku batera, horrekin bai ez dugula inongo problemik.

Irratia Beraz, hau bota beharko genuke plastikozkoen ontzira.

Enrike Bai, edukiontzi horira.

Irratia Ez beira edo edariak botatzen ditugun horretara ez.

Enrike Ez.

Irratia Tetabriekin batera esango genuke edo...

Enrike Plastikoekin batera bai.

Irratia Eta lata osoa, ez diogu ezer kendu behar?

Enrike Ez, ez.

Irratia Dena aprobetxatzen delako.

Enrike Hori dena aprobetxatzen da, bai.

Irratia Eta hirugarren zakar-poltsa eta honek bai ematen dizkigula lanak, e? Berdin al du kartoia edo papera botatzeak? Ze hemen paper soinu dugu, berdin din du?

Enrike Bai, edukiontzi urdinera, egia esan, jendeak nahiko ondo botatzen du.

Irratia Bai?

Enrike Bai, edukiontzi berdea eta urdina dira hoberenak, jendeak ez daukalako horrela duda handirik, zalantza handirik, zer bota daiteken, zer ezin da bota; nahiko ondo ikusten da

zer bota daiteken. Problema gehiago ematen digu horiak, horiak bai agertzen dela denetik, baina urdinean ez

Irratia Denetik esaten duzunean, kuriositatez, zer esan nahi duzu?

Enrike Edozer, lehenago, Ordizian behin agertu zitzaigun ardi bat

Irratia Ardi bat?

Enrike Bai, ardi bat.

Irratia Ardia?

Enrike Ardia, akabatuta, klaro.

Irratia Noski, baina...

Enrike Bai, beno, hemen agertu izan zaigu Donostia aldetik, eta motorreko kaskoak, eskiak, eskiatzeko botak, zapatilak, persianak eta behin agertu zitzaigun motor bat osoa, motozikleta bat.

Irratia Motorra? A, bai?

Enrike Bai, bai. Hau uste dut etorri zela Irundik edo horrela agertu zen.

Irratia Txantxa bat egiteko, broma bat egiteko edo.

Enrike Ez nola metalezkoa zen, ba, pentsatu zuten...

Irratia Latekin batera botako dugu.

Enrike Bai, bai. Nik uste dut baietz.

Irratia Paperarekin ari gara.

Enrike Bai.

Irratia Mukizapi bezala erabiltzen ditugun serbiletan horiek ere bota ditzakegu horra.

Enrike Garbia baldin badago bai

Irratia Bale, eta eskutitz intimoak edo fakturak? Horiek?

Enrike Bai, jendeak hori galdetzen digu, bai bota daiteke, gero zer egiten den honekin?

Irratia Hori beste galdera bat, orain dela gutxi polemika handi bat gertatu zen, ez dakit gogoan izango duzun? Banketxeko fakturak norbaitek hartzen zituelako, eta oso gaizki...

Enrike Bai, jendeak deitu izan digu. Guk egiten duguna da edukiontzia hustu kamio batera, kamioi horrekin eramaten da almazen batera, eta almazen horietan egiten dena da fardoak, belar-fardoak bezala. Fardo horiek gero papeleratara eramaten dira, eta han egiten da paper birziklatua. Orduan, bide horretan faktura galde daitekeela, honbre, edukiontzi normaletan ere norbaitek sartzen badu eskua hartu dezake, hori gerta liteke, ez da normalena, baino gerta litekeela, igual, bai.

Irratia Esku txiki-txiki bat dago, baina bueno..., bai baina bota daitezke.

Enrike Bai, edo puskatuta bota eta kito.

Irratia Eta listo.

IX. ERANSKINA

(8. bideo-pasartea. ETB: 01.23.03)

Mende amaiera

Aberastasun hau berdintasunez banatua ez dagoen arren, kontsumoaren aitzindariak ongi izatearen ikurrak asmatzeaz arduratu ziren. Objektu hau aztertzen badugu, ohartuko gara gizartea aberats eta gastuzale batek soilik diseinatu ahal zuela. Bere barruko edukiaren prezioa baino garestiago den ontzietariko bat da. Haren popularizazio azkarrak aluminioaren produkzioa areagotu du, eta beronen prozesurako elektra-energia asko behar da. Estatu Batuetan, adibidez, edari freskagarrien poteek berekin daramate nazio horretan sortutako aluminio gehiena. Birziklagaitza den produktu masibo bat da, gainera, eta, ondorioz, egundoko eragina du ingurugiroan.

Neurri batean, salneurriak ez duela kontuan hartzen hauen produkzioak eragindako ingurugiro-kostua; hau da, pote hau Estatuak diruz lagundutako elektra-indarrari esker fabrikatu da, eta haren merkatu-prezioan ez da sartzen elaborazioak ingurugiroan eragindako kaltearen dirubaliorik. Automobil honen prezioan ere ez da sartzen okupatzen duen espazio publikoaren erabilpena eta mantenimendua, eta bere jabeak ez du pezeta bat bakarra ere ordainduko ibilgailuak sortuko dituen gas toxikoengatik.

Ikuspegi honek erabaki-sorta bat hartzera behartzen du, edari freskagarrien zein okelaren kontsumoa eta garraio-beharra mehatxu-moduan ikusi behar ez izateko. Hala ere, beharrezkoa izango da kontsumo-eredu neurritsuagoak eta kualitatiboki ezberdinak hartzea; adibidez, produktu iraunkorrak, birziklagarriak eta berrerabilgarriak kontsumitu beharko dira. Ahal bada, garraio publikoa erabili beharko da, baita energi kontsumo gutxitako elektragailuak ere. Garau-, barazki- eta fruta-kontsumoa handitu beharko da eta okelarena, berriz, murriztu. Honako neurri hauek eta beste batzuk lagundu egingo ligukete kontsumoren ingurugiro-kaltea murrizten, eta Hirugarren Munduan eragiten ari garen ingurugiro-erasoa biguntzen. Hitz gutxitan, erronka itzela datorren hamarkadarako, norberaren eta denon elkar laguntza eskatzen duena.

1. fitxa

Plastikoak

Poltsakada bat zabor aztertuz gero, %14 plastikoak dira. Gehienak erabilera bakarreko ontziak eta tankera guztietako bilgarriak dira (PET edo PVCko botilak, polietilenoazko poltsak, artelazki edo kortxo zuriko erreteilu eta babeskiak...). Zabortegian lurperatuz gero leku handia hartzen dute eta ehundaka edo milaka urte behar izaten dituzte degradatzen. Erretzea erabakiz gero, CO₂a igortzen dute atmosferara, eta osagai horrek, eguraldiaren aldaketan eragina izateaz gain, osasunarentzat eta ingurugiroarentzat oso arriskutsuak diren beste kutsagarri batzuk ere aireeratzen ditu. PVCa da erabilera hedatuenetakoa duen plastikoa. Egiterakoan kutsadura handia eragin dezake, eta erabili ondoren erre egiten bada, dioxina eta furanoak sortzen ditu. Horrexegatik, plastikoak erabiltzen baditugu, baliabide ez berriztagarria ahitzen laguntzeaz gain, petrolio atera, garraiatu eta plastiko bihurtzeak eragiten duen kutsadura bultzatzen dugu.

2. fitxa

Brikak

Gehienetan ontzi angeluzuzenak izaten dira, zelulosa, aluminio eta plastikozko (polietilenoa) geruza mehez eginak. Erabiltzen dira freskagarriak, zukuak, hura, ardoa, saltsak, esnekiak eta bestelako likidoak ontziratzeko, oso ongi kontserbatzen baitituzte janariak, eta duten pisuak eta formak erraztu egiten du garraioa eta biltegiatzea. Ontzi hauek egiteko lehengai ez berriztagarriak eta energia kontsumitzaileak erabiltzen dira: aluminioa eta petrolio. Plastikoa eta aluminioa bereizteak duen zailtasunagatik, ezin dira birziklatu eta brik berriak egin. Madrilen %0,28 soilik berreskuratzen da, eta horrekin balio txikiko gauzak egiten dituzte.

3. fitxa

Latak

Metalak dira hiri-hondakin solidoen pisuaren % 11,7, eta bolumenaren %4,2 latak dira. Burdin, zink, latorriz, eta, batez ere, aluminioz egiten dira, eta egundoko arazo bilakatu dira erabilera bakarreko ontzi gisako erabilera orokortu denetik. Aluminioa egiteko erabiltzen den bauxita gai ez berriztagarria da, eta mea hori ustiatzean Amazoniako milaka kilometro karratu ari dira hondatzen.

4. fitxa

Beira

Beira horren material gogorra eta egonkorra izateak eragin du solido eta likidoak kontserbatzeko erabiltzea, sukaldeko tresnerian, isolatze lanetan, etc. Ez du gehigarririk behar, eta, beraz, ontziratutako gaiak ez dira aldatzen, ongi eusten dio herdoilari, gasekiko iragazgaitza da... Arazoa da botatzeko beirazko ontzien erabilera orokortu egin dela, nahiz eta ontzi horiek 40 edo 50 aldiz ere erabil daitezkeen, puskatu ezean. Beirazko ontzien %100 birzikla daiteke, baina prozesu horrek kutsatu egiten du eta energia gastatzea eskatzen du.

5. fitxa

Pilak

Oso kutsagarriak dira, batez ere, merkurioa eta beste metal astun batzuk dituztelako (bereziki botoi-pila gehienak). Pila horietako bakar batek 600.000 litro ur kutsa ditzake. Pila arruntak ez dira horren kaltegarriak, baijan horrek ez du esan nahi kaltegabeak direnik ingurugiroarentzat.

6. fitxa

Papera eta kartoia

Konta ezinak dira paperean edo kartoian paketatutako eguneroko kontsumo-gaiak, eta, ondorioz, zaborraren pisuaren %20 eta bolumenaren herena dira. Asko eta erraz birziklatzen bada ere, eskariak gora egin du eta horrek zelulosa-ore gehiago ekoiztea eskatzen du, eta, ondorioz, milioika arbola bota behar izatea. Horrezaz gain, hazkunde azkarreko zuhaitzak landatzeari ekin zaio (eukaliptoia, pinua), bertakoen kaltean, eta, orobat, papergintzari lotutako kutsadurak gora egin du. Era berean, gogoan hartu behar da ezin dela edozein paper birziklatu: paper plastifikatua, itsaskorra, argizarizkoa edo faxetan erabiltzen dena ezin dira birziklatu.

XI. ERANSKINA

Zaborra, a zer pisua!

Gaikako zabor-bilketak zaborren tratamendua eta birziklatzea erraztuko ditu

Duela gutxi onetsitako bi legeak, ontzien Legeak eta hondakinen Legeak, ondorio zuzenak izango dituzte gure eguneroko bizitzan.

Hemendik gutxira zaborrak bost multzotan bereizi beharko ditugu: papera eta kartoia, beira eta pilak, kaleko edukiontzi berezietan bilduko ditugunak; zabor organikoa eta beste zenbait ontzi-mota (*latak, plastikoak eta brikak*), etxeetan bi poltsatan sartuko ditugunak, horiak ontzietarako eta beltzak gainerakoetarako. Hondakin-mota horiek bereizteak gaikako zabor-bilketa erraztuko du, bai eta horien tratamendua, birziklatzea eta materialen berrerabilera ere.

Etxeko hondakinak bi poltsatan bereiztean datza benetako berrikuntza, hiri eta herri askotan aspaldian baitaude beira eta papera uzteko edukiontziak. Arau horien asmoa da zakarrontzira botatzen diren material asko birziklatzea edo behar bezala ezabatzea, zuzenean zabortegira eraman beharrean. Hala, Espainian urtero sortzen diren 15 milioi tona zabor (kilo bat baino gehiago pertsona eta egun bakoitzeko) hobeto aprobetxatu nahi da, eta zabortegiek ingurugiroan duten eragina murriztu.

Hondakina sortzen duenak bere gain har dezala

Hori da legeria berriaren lema, eta agerikoa da ontzien eta enbalajeen kasuan, gero eta gehiago nagusitzen ari diren osagaiak baitira botatzen ditugunak zaborretara. Ontziratutako edozein produkturen fabrikatzailea arduratuko da berau biltzeaz eta, ondoren, ezabatu edo berrerabiltzeaz. Horretarako, aukera bat baino gehiago diru:

Zuzenean bere ontziak berreskuratzeaz arduratzea. Adibidez, kontsumitzaileari diru-kopuru jakin bat kobratu, baina ontzia hutsik entregatzen duenean itzuliko zaiona. Beirazko botiletarako beti erabili izan den moduan, "kaskoa" itzuli behar izaten zenean, alegia.

"Punta berdera" edo gestio-sistema osora jotzea. Sistema honen bidez, ezarritako diru-kopuru jakin bat ordainduko du fabrikatzaileak ekoizten duen ontzi bakoitzeko. Diru horrekin udalek gaikako zabor-bilketa finantzatzeko dute beren herri eta hirietan.

XII. ERANSKINA

Zaborra, a zer pisua!
(Amaieraduna)

Gaikako zabor-bilketak zaborren tratamendua eta birziklatzea erraztuko ditu

Duela gutxi onetsitako bi legeak, ontzien Legeak eta hondakinen Legeak, ondorio zuzenak izango dituzte gure eguneroko bizitzan.

Hemendik gutxira zaborrak bost multzotan bereizi beharko ditugu: papera eta kartoia, beira eta pilak, kaleko edukiontzi berezietan bilduko ditugunak; zabor organikoa eta beste zenbait ontzi-mota (*latak, plastikoak eta brikak*), etxeetan bi poltsatan sartuko ditugunak, horiak ontzietarako eta beltzak gainerakoetarako. Hondakin-mota horiek bereizteak gaikako zabor-bilketa erraztuko du, bai eta horien tratamendua, birziklatzea eta materialen berrerabilera ere.

Etxeko hondakinak bi poltsatan bereiztean datza benetako berrikuntza, hiri eta herri askotan aspaldian baitaude beira eta papera uzteko edukiontziak. Arau horien asmoa da zakarrontzira botatzen diren material asko birziklatzea edo behar bezala ezabatzea, zuzenean zabortegira eraman beharrean. Hala, Espainian urtero sortzen diren 15 milioi tona zabor (kilo bat baino gehiago pertsona eta egun bakoitzeko) hobeto aprobetxatu nahi da, eta zabortegiek ingurugiroan duten eragina murriztu.

Hondakina sortzen duenak bere gain har dezala

Hori da legeria berriaren lema, eta agerikoa da ontzien eta enbalajeen kasuan, gero eta gehiago nagusitzen ari diren osagaiak baitira botatzen ditugunak zaborretara.

Ontziratutako edozein produkturen fabrikatzailea arduratuko da berau biltzeaz eta, ondoren, ezabatu edo berrerabiltzeaz. Horretarako, aukera bat baino gehiago diru:

Zuzenean bere ontziak berreskuratzeaz arduratzea. Adibidez, kontsumitzaileari diru-kopuru jakin bat kobratu, baina ontzia hutsik entregatzen duenean itzuliko zaiona. Beirazko botiletarako beti erabili izan den moduan, "kaskoa" itzuli behar izaten zenean, alegia.

"Punta berdera" edo gestio-sistema osora jotzea. Sistema honen bidez, ezarritako diru-kopuru jakin bat ordainduko du fabrikatzaileak ekoizten duen ontzi bakoitzeko. Diru horrekin udalek gaikako zabor-bilketa finantzatzeko dute beren herri eta hirietan.

Hobe izango da beti soluziobide horietako bat hartzea ontziak kontrolik gabe isurtzea baino. Ekologistek diotenez, ordea, soluziobide guztietatik onenari ez zaio garrantzi handirik eman: ontzien kopurua eta tamaina murriztea eta hain kutsagarriak ez diren eta birziklatzen errazagoak diren materialak erabiltzea.

XIII. ERANSKINA

Beste iradokizun batzuk

ADI EGON! (1. fitxa)

Oraingo gizartean, aldaketak hain azkarrak direnez, lehen bereganatutako gauzek eta baloreek agian ez dute geroko balioko. Hortaz, interesgarria izango da eskaintzen zaizkigun aukerak aprobetxatzea (komunikabideak, argitalpenak, hitzaldiak...), ingurugiro gaiei buruz dugun informazioa eta gaitasuna hobetzeko.

HOBE DENOK BATERA (2. fitxa)

"Gizarte zibila" edo "gizarte-ehuna" deritzona osatzen duten elkarte asko daude (ikasleen guraso elkarteak, kultur elkarteak, kontsumitzaileen elkarteak, emakume nahiz ekologi elkarteak...); horiek, aisialdirako aukera eskaintzeaz gain, ahalmen handia dute hiritarren partaidetza eta boluntario-taldeak sustatzeko.

Halako elkarteren batean parte hartzea biderik onena izango da gure seme-alabek elkarteen mundua ezagutzeko eta horrekiko interesa izateko. Umeen eta gazteen munduan ere eskaintza zabala dago: natura ingurugiro klubak, aisialdiko klubak, mendi-taldeak, talde kontserbazionisten gazte-taldeak...).

IZAN ZAITEZ INGURUGIROAREN ALDEKO BOLUNTARIOA (3. fitxa)

Zuhaitzak landatu, iturriak berriztatu, zidorrak seinalezatu, eremuak garbitu, espezieren baten jarraipena egin, eremuren bat "adoptatu"... ingurugiroaren aldeko boluntarioen proiektuetan planteatzen diren ekintzetariko batzuk dira. Oro har, jarduera hauek esfortzu fisikoa eta naturarekiko harreman zuzena eskatzen dute. Gainera, hobekuntza zehatzak eta agerikoak eragiten dituzte inguruan. Hori dela eta erakargarriagoak dira.

EGUNEROKOA AURKITU (4. fitxa)

Seme-alabei gure herria etengabe aldatzen ari dela jakinaraziko diegu: gauza batzuek hobera egin dute eta beste batzuek txarrera. Antzinako argazkiak orain ikusten dugunarekin konparatuko ditugu.

Egingo dugu ibilalditxo bat egunero ikusten dugunari beste modu batera begiratzeko?

Umeez, apurka-apurka, ondasun eta espazio publikoak garrantzitsuak direla eta errespetatu egin behar ditugula ulertuko dute, gure auzoa bizigarriagoa izatea lor dezaketen gauza txiki asko daudela, parte hartzeko aukera ematen duten erakundeak nahiz elkarteak ditugula, orain hartzen diren erabakiak etorkizuna egiten ari direla...

DESBERDINTASUNA ERRESPETATU (5. fitxa)

Gizarte artean ere aniztasun handia dago. Gure munduan kultura nahaste gero eta handiagoa badago ere, sarritan diskriminazioak egoten dira ondoko arrazoen eraginez: etnikoak, hizkuntzakoak, kulturalak, ekonomikoak, etab. Beste kultura batzuekiko interesa izatea eta horien berezitasunak errespetatzea nahiz baloratzea aurrerapauso garrantzitsua izango da mundu solidarioagoa eta osasuntsuagoa (ingurugiroaren aldetik) sortzeko. Geu bezalakoak ez direnekiko errespetua eta tolerantzia lehenengo pausoak dira "besteak" ezagutzeko eta ulertzeko. Horrek aurreiritziak gainditzeko eta desberdintasuna modu positiboan baloratzeko aukera ematen du. Izaki bizidunen aniztasuna (biodibertsitatea) baloratzen irakatsi diegun bezala, seme-alabei gizaki taldeen arteko kultur aniztasuna errespetatzen ere irakatsi behar diegu.

ESAN AUZOKOARI (6. fitxa)

Inguruan ditugun pertonekin halako gauzei buruz mintzatuko gara. Agian zure auzokoak ez daki kontsumo txikiko bonbillak erabil ditzakeela, edo zure lagunen bat birziklatzeko papera gordetzen hasiko da, zeu hori egiten ikusiz, gero. "Ahoz ahokoa" komunikazio metodorik eraginkorrena da.

XIV. ERANSKINA

Karrantzako bailara

(<http://www.argia.com/gida/karrantza1a.htm>)

Escrita mendateko gaina harrapatu orduko Karrantzaldeko ikuspegi ederrak bata bestearen atzetik etorriko zaizkigu, baina onena zera duzue, kilometro eta erdi jaitsi eta eskuinerantz El Suceso auzora doan bide asfaltatua hartzea. Izen bereko atsedenekura iritsiko gara, zezen-plaza, askaldegi zabal eta zelai lasaigarrietara. Baina, batez ere, hau guztia zeharkatuz, El Sucesoko Andra Mari basilikatxo-begiratoki zoragarria topatuko dugu. Karrantzako bistarik ederrenak (benetan izugarriak) bertatik ikusiko dituzue.

Berriz ere Karrantzako "erdigune"-rantz eramaten gaituen errepide bakarrean, laster, bisitatu berri dugun mirarira igotzen den bigarren bidea ikusiko dugu. 43,5 kilometroan El Callejo auzo-herritxoa pasatuko dugu, Karrantza udalerrria osatzen duten hainbatetako bat, oso udalerririk sakabanatua baita. 400 metro aurrerago, bigarren helmugara hurbilduko gaituen bidegurutzeara dugu. Horrela, eskuinera biratuz, Bizkaiko Parke Ekologikorantz abiatu gaituzke, lehenbizi errepide batekin topo eginez eta hortik aurrera beti zuzen jo behar dugula. Kilometro batera Biañez auzoa sigi-sagean zeharkatu ostean, kilometro eta erdi eskasean aipatutako Bizkaiko Parke Ekologikoaren sarrera parean izango dugu. Hortik aurrera, hainbat animalia eta landareren artean gozatu.

Errepidea oraingoan El Callejo-n bertan edo 500 metro beranduago harrapa genezake, azken honetantxe ateratzen baita parkeraino doan errepidea (El Callejo auzoa zeharkatzen duena errepidearekin bat egiten duen beste bidexka bat da). Berehala Karrantzako beste auzoetako bat zeharkatuko dugu, Ambasaguas, alegia. Izenengatik konturatuko zaretenez, Bizkaiko zonalderik erdaldunenean gabiltza. Hemen ere zuzen segituko dugu. 3 kilometro geroago, Pozalaguako kobak ondo seinalizatzen dituen eskuineko bidea hartuko dugu. 1,5 kilometrotara ere eskuinera hartu eta Ranero-Pozalagua ezkerretara izango duzue. Berehala, Ranero inguruko paisaia harkaitsua behatzeko aukera izango dugu, oraindik urrun samar geratzen bazaigu ere. Ranero auzoa bera laster harrapatuko dugu, eta hau ere sigi-sagean zeharkatu beharko dugu, gorantz eta ezkererantz, "Cuevas" jartzen duen karteltxo trakets bati jarraikiz.

Azkenik, lehen aipatutako paraje arrokatsu horretan bete-betean sartzen garelarik, 2,5 kilometrotara Pozalaguako haitzuloetako sarrera metalikora iritsiko gara, etxolatxo baten ondoan. Barruan zain, formarik harrigarrienak sortzen dituzten Europako estalaktita eta estalagmita bildumarik interesgarrienetakoa.

Pozalagutatik itzuli ostean, ibilbidea Karrantzako bailara eder honetako erdigunetzat jo genezakeen Kontxa auzoan bukatuko dugu, Ambasaguasera itzuli eta eskuinera, Bizkaiko zein Euskal Herriko lehen (edo azken) herria den Lanestosarako bidean.

XV. ERANSKINA

Txango bat Karrantzan

Pasa den azaroan ikastetxean irteera bat antolatu zuten:

Karrantzara joan ginen. Goizeko zortzietan irten ginen Erandiotik, eta Karrantzara hamarretarako heldu ginen; bi pisuko autobus batean joan ginen. Karrantzan ingurugune babestua dago, horregatik eraman gintuen Natur Zientzietako irakasleak.

Kontatuko dizuet han egin genuena. Hara heltzeko bidea nahiko txarra izan zen: kurba asko zegoen, eta jendea zorabiatu egin zen. Heldu ginenean, gida bat geneukan gure zain, oso mutil jatorra zen, denbora guztian gurekin egon zen, eta animaliak erakutsi zizkigun, azalpenak ere eman zizkigun. Esan zigun han zeuden animalia guztiak Iberiako Penintsulakoak zirela. Ibilbidea egiten genuen bitartean, komentatu ere egin zigun isilean izan behar genuela, animaliak izutu egiten zirela eta.

Ibilbide bat markaturik zegoen eta horixe egin genuen; ibilbidea egin bitartean animalia desberdinak ikusi genituen: otsoak, azeria, hartzak, dortokak, oreinak, muxarrak, saiarrera, basurdeak, eguzki-arranoa, eta bestelako arranoak. Beno, animalia hauek guztiak gaixorik egondakoak dira, bertan sendatu dituztenetik han gelditu dira. Animaliak dauden lekuetan kartel batzuk daude eta beraietan azaltzen dira animalien ezaugarriak (gure irakasleak esan zigun apunteak hartzeko, gero material horrekin lan bat egiteko). Oso interesgarria izan zen beren ezaugarriak ezagutzea. Niri gehien gustatu zitzaizkidan animaliak otsoak, hartzak eta muxarrak izan ziren. Beraiei begiratzen eta hitz egiten denbora luzea eman nuen.

Karrantzako ingurua oso polita da, nik esango nuke zoragarria dela, dena berde-berdea. Ez zuen euririk egin eta horregatik oso ondo ikusten eta sumatzen zen ingurua: mendiak, zelaietako berdetasuna, belar usaina, animalia usaina, zuhaitzen zarata...

Han hiru ordu pasa genuen ibiltzen, hitz egiten..., gero herrira joan ginen eta han bueltatxo bat eman genuen, jendea lanean zegoen, laneguna baitzen. Herrian bazkaldu ondoren Erandiorantz bueltatu ginen. Guretzat kontraste handia izan da, zeren guk beste ingurugune bat daukagun, eta beste inguru batzuk ikustea oso ondo datorkigu, horrela konpara eta ikas dezakegu.

XVI. ERANSKINA

(9. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 01.26.23)

Ortografia

IRRATIA Arratsaldeko seietarako 29 minutu besterik ez, tertulia-gela irekitzeko garaia; entzuten duzue, gure gonbidatuak iritsi dira. Gaur hitz egiten dugunari baino gehiago idazten dugunari begiratu nahi diogu: ortografiari, ikasle askoren amets gaiztoari. Datu batek eman digu tertulia egiteko aitzakia, DBHko ikasleak ez dira kapaz ortografia akatsik gabe 25 hitz idazteko.

Bueno zuek eskuz idazten al duzue? Edo ordenadorea erabiltzen al duzue? Ea kontaiguzue.

Jose M. Nik erabat eskuz. Haserre nago ordenadorearekin, eta, gainera, ez nau batere inspiratzen, gailu horrek, batere ez. Alderantziz, erabat trabatu eta atzeratu egiten nau, eta, orduan, nahiago dut eskuz idaztea, nahiz eta gero, oraindik ere, saiatzen naiz noizik behin neroni ordenadorez egiten, edo txukunago jartzen, ezta? Baino ahal baldin badut eta norbait aldamenean tokatzen baldin bazait...

Irratia A, klaro! Beste bati ematen diozu lana.

Jose M. Nahiago izaten dut hark egitea.

Iker Baina galdera zen akatsik gabe edo akatsekin; hori zen galdera.

Jose M. Ez, ez, ez. Galdera zen egiten dugun ala ez.

Irratia Hori da. Ikerrek ez du erantzun: ordenadorea erabiltzen duzu gehienetan edo... ?

Iker Ordenadorea erabiltzen dut, eta eskuz, baita ere, idazten dut. Niri askoz gehiago gustatzen zait, Jose Mari bezala, eskuz idaztea ordenagailuz egitea baino.

Irratia Bai?

Iker Bai, bai, bai.

Agustin Neu ere gehienetan eskuz; gehienetan, eskuz, eta, gero, garbira pasatzeko, ordenagailua; baina, lehenengo, lehenengo eskuz.

Irratia Baina zenbat lan hartzen duzuen, ez?

Agustin Bai, ez dakit nik; usten dut ohitura dela, ez? Ez dakit, baina gehiena; gutxienez, lehenengo zirriborroa eskuz.

Irratia Eta erreparatzen al diozue ortografiari?

Jose M. Bai.

Irratia Bai.

Jose M. Noski baietz!

Irratia Aho batez esan dute gainera, bai.

- Jose M. Noski baietz! Nik uste dut gure garaikoak behintzat, gure garaikoak behintzat, ohitura beti izan dugula ortografia zaintzeko; ba, Agustinek eta nik esan nahi nuen, eta...
- Irratia Oso ondo, Jose M. Segi!
- Jose M. Eta Ikerren kasuan ez dakit...
- Iker Jarraitu, jarraitu.
- Jose M. Eta Ikerren kasuan ez dakit, baina espero dut, baita ere, horien garaian ere zainduko zutela, ezta?
- Irratia Gero galdetuko diogu.
- Jose M. Zainduko zutela, ezta? Esan nahi nuen txiki itatik, gutxiago edo gehiago, hori zaintzen ikasi dugu. Gainera, nik neronek, pertsonalki, pentsatzen dut hori zaintzea egokia dela. Gaurko egunean hainbeste aldiz aipatzen da kalitatea eta akatsak huts eta horrelako esloganak ere entzuten dira, bai. Produktuak burutzerakoan, egiterakoan, baita ere, bezeroei zerbitzu bat ematerakoan, eta, orduan, pentsatzen dut, alde honetatik ere akatsak huts egitea, berez, ona dela eta kalitatea hobetzea dela. Hori da nire irizpidea.
- Agustin Bat nator, neuk ere. Beste gauza bat da gero, batzutan, egiten ditudala faltak, e!
- Irratia Baina saiatzen zara.
- Agustin Bai, nik usten dut hori begira... eta bai kontuan hartu, eta iruditzen zait, gainera, gauzak ondo egitea hobe dela txarto egitea baino. Alde horretatik, iruditzen zait gainera ortografia ondo erabiltzea laguntzen du gauzak ondo idazten eta ondo leitzen, baita ere, eta ondo ulertzen, eta nik usten dut hori dela inportanteena; azken finean, nik zer edo zer idazten baldin badut neuretzat edo beste batek irakurtzeko, kasu horretan gauzak ondo eginak badaude, besteak ere hobeto ulertuko du nik esan behar dudana, eta iruditzen zait hori kontuan edukitzekoa.
- Beste bat Niri harritu egin nau ikusteak, nahiz eta gaztelaniako hitzak izan, zein hitzak azaltzen diren... Ba ez dakit, orain dela 50 urte dirudi, antzeko hitzak azaltzen zirela, hemen egiten dute 25 hitz, baina, gero, orain dela 50 urte ere 25 horietatik 14 azaltzen dira eta, gainera, oso-oso arruntak, egunerokoak dira, ez?, "día" eta "más" tilde barik eta horrelako hitzak, eta, koño, harrituta.
- Iker Gaur egungo gaztetxoak, gero eta denbora gutxiago dute irakurtzeko, edo ez dute aurkitzen edo nik, desde luego, ezagutzen ditut batzuk eta beraien agenda komillartean ezagututa, ez dute denborarik irakurtzeko
- Agustin Eskolatik irteten direnean, deporte egin behar dute.
- Iker Denborarik ez badute irakurtzeko, nola demontre jakingo dute idazten.
- Jose M Iker, telebista ikusteko badute denbora.
- Iker Kontatu didazu orduan posiblea den idaztea eta ez irakurtzea; hori kontatzen badidate, agian, ulertuko dut, baina nik usten dut irakurmenean dagoela dena, ez?
- Irratia Baina benetan hori pentsatzen duzu?
- Iker Nik pentsatzen dut jendeak gehiago irakurriko balu eta denbora gehiago aurkituko balu irakurtzeko, jendeak hobeto idatziko lukeela.

- Irratia Memoria bisuala baldin badu bai, baina bestela...
- Iker Bai, bai. Nik usten dut baietz, eta ideiak adierazteko, eta ondorioz...
- Irratia Ortografia ikasiko lukete.
- Iker Ez ortografia, azken finean, arauak dira. Niretzako hori eratorriz etorriko litzateke.
- Jose M Baina badago beste fenomeno bat, beharbada, hori baino zabalagoa dena, horren atzean ere egon litekeena. Zuek ez duzue usten guk, askotan,—batez ere,euskaldunok, ezta?—, beharbada, espresatzeko garaian, gauzak adierazteko garaian motel samarrak garela?
- Irratia Nola motelak?
- Jose M. Ez dakit. Zuk hartzen baldin baduzu...
- Irratia Kontuz zer esaten duzun.
- Jose M Hartzen baldin baduzu, ba, italiar bat hartzen baduzu, edo mexikar bat, edo ez dakit zein, badirudi unibertsitatean diplomatuta datorrela; eta sekulako jarioa dauka, eta hitzuna da oso, eta hitzak erabiltzen ditu oso aisa, oso erraz. Zuek hartzen baduzue Mexikon taxista bat, taxista horrek politiko pila batek baino askoz hobeto hitz egiten du, askoz ere hobeto.
- Iker Ez da zaila.
- Jose M Sekulako diskurtsoa botatzen dizu, eta, gainera, oso ondo burutua eta oso ondo jositakoa, ezta? Orduan, galdera bat da piska bat guk horretan ez al garen piska bat motelagoak edo ez dugun... nagiagoak edo ez dakit, lotuagoak, lotuagoak esango nuke.
- Irratia Hizkuntzagatik?
- Jose M Ez hizkuntzagatik, gure izaeragatik edo gure...
- Iker Arrazoi antropologikoagatik.
- Jose M Ez dakit.

XVII. ERANSKINA

"Txuri arraia"

"TXURI ARRAIA"

Ba zen bein arrai txiki bat Txuri izena zuela. Arrai hau bere gurasoekin batera buelta bat hematera joan zen, baina bera ez zekien zertarako joan behar zuen beraikin, ez zuen ulertzen. Laurak iritsi ziren eta Txuri bere gurasoekin gelditu zen herrekan, baina Txuriri bere gurasoekin zeukan bilera haztu zitzaion eta ordu erdi beranduago iritxi zen.

Iritxi zen eta bere gurasoak ez zeuden batera haserretutak, eta berari horrek arritu zitzaion. Txuri pixka bat moskeatzen ari zen baina ezer gertatu bazen bezala jarraitu zuen esanez ea zertarako etorri zen. Bere aitak Santxi esan zion gauza oso garrantzitsu bati buruz hitzegingo zutela, Txurik zerbait esan nahi zuen baina bere aitak Txurik zerbait esan aurretik aurreratu zen esanez, begira zu eldua zara eta zure bisitzan pentzatu behar duzu. Txurik ez zuen ulertzen eta momentu batez bere aitak erotuta zegoela pentsatu egin zuen. Ea zer esan nahi zuen horrekin galdetu zion bere aitari eta bere aitak historio bat kontatu zion, arretaz entzuteko esan zion Txuriri:

"Nik zure edadea nuenean txapa berdina jasan nuen aitonarengandik, aitona nik horain txebertan nagoen bezala zegoen oso urduri eta zera esan zidan, nire momentua zela nere bizia aldatzeko, eta nik ez nuen ulertzen eta berak esan zidan eldua nintzela eta nik ez nuen sinistem eta horrela dena. Azkenean ama eta biok egindako bizia kontatu zidan eta esan zidan bera egun batetan biaje oso luze bat egin zuela bera aurkitzeko, nik ez nuen ulertzen eta galdetu nion ia bera amak aurretik esagutzen zuen et esetz esan zidan, eta ni galduta negoen. Aitak esan zidan ama bezalako arrai politak esagutu zuela baina bat da aproposa zuretzat."

Ia Txurik horain arte ulertu suen galdetu zion aitak eta Txurik baietz esan zuen, baina galdetu zion ia hori arraien paraisoa zen, eta aitak erantzun zion:

"Ia hori da baina ez da edozein iristen, oso urrun dago eta zailtasun hasko jazan behar dituzu leku horretara, gehienetan zure bisitza arriskuan jarri bear duzu".

Txuri beldurra zuen eta esan zion bere aitari bera oso ongi zegoela bere lagunekin eta ia derrigorrezkoa zen hori egitea, aitak honelako hau erantsun zion:

"Ez da derrigorrezkoa, baina zure lagun guztiak egingo dute eta zu bakarrik ez zara geldituko, ez da horrela?, gainera garaia da arrai neska bat bilatzea zure bisitza egiteko, zereneta ez zara gurekin egongo bisitza osoa ez?"

Txurik bidai hori egin behar zuela esan zion bere aitari, baina bidaiaren norantza esateko esan zion.

"eh... ez izan hain azkarra lehendabizi arauak esan behar dizkizut, oso sinpleak dira ulertzeko baina gero aplikatzeko oso zailak dira, eta hor da kontua izan behar duzun tokia. Hauek dira arauak: ez lehendabizi esango dizut bidaiaren norantza, bidaiaren norantza hibaian gorantz da, eta horian arauak:

Ia hori bakarrik egin behar zuengaldetu zion Txurik.

"Arauak: ezin zara gelditu, naiz eta oso nekatuta egon, kontuz ibili behar zara arrai haundiekin zeren eta gose baldin badaude..., kontuz izan behar duzu jaten duzunarekin, zereneta batxuetan

ez dakit nor uretatik ateratzen digu eta akabo ez da inork bueltatu abizatzeko, eta askeneko gauza eta nik uste dut txarrena dena, ez zara gurekin berriro topatuko, ezta zure lagunekin oso zaila da, zereneta kasu honetan arrai neska aukeratzen du ea zein izango den zuek biziko zareten lekua, beraz nik uste dut dena ulertu duzula"

Beraiekin zer gertatuko zen galdetu zuen Txurik eta kasu honetan amak gehien sufritzen zuena esan zion bere anaiak aspalditik desagertutak daudela eta berazela gelditzen zitzaion asken gauza, baina arrai arrun bat bezala jokatu behar zuela eta horregatik joan behar zela.

Agurtzeko eguna iritxi zen eta Txirik beldur asko zuen, baina bere gurasoen agurrak jaso eta gero atera zen. Luzaroan ikusten zitzaion, baina askenean il untasunean desagertu zen. Nor jakingo du zein izango den Txuriren destinua, ez daki ezta berak...